



## Generoa erakundeetan

Alkate izandako hiru emakumezkoren iritziak jaso ditugu / 2-4

**Etxarrengo Kontzejua Aranburu frontoiko hezetasun arazoak konpontzeko laguntza zain dago / 7**

**Altsasuko Dantzalekurako ur hornidura sarea eta kirol gunea berritzeko milioi erdi euro / 9**

**Ezkurdiak eta Altunak finaleko txartela dute jokoan, eta Osasuna Magna Xotak Lehen Mailako salbazioa / 16-17**

**Nahia Imazek 23 urtez azpiko maila mustu du. Vueltan eta Itzulian egindakoarekin gustura dago / 19**

**Lakuntzako bertso eskolaren jaialdia egingen dute maiatzaren 26an, herriko plazan / 23**



# Generoa ate joka udaletxean

Alkate izandako hiru emakumezkoren berri jasotzeak balio du generoaz, politikaz, erakundeez eta kudeaketaz hausnartzeko. Argi-ilunak ageri dira hiruen kontakizunean, udalen kudeaketan berdintasuna lortu ez denaren adierazgarri

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA

Datuek agerian uzten dute oraindik ere alderdi eta koalizioen zerrendak osatzen dituzten hautagai gehienak gizonezkoak dira. Sakanan udal hauteskundeetara aurkeztutako 27 zerrendetan %55,30 gizonezkoak dira eta %44,70 emakumezkoak. Kontzejuetakoetan, berriz, %62,26 eta %39,62 dira. Udal hauteskundeetan atarian beraien herriko alkate izandako hiru emakumezkoren lekukotza jaso dugu.

**Alkatezta hartzea espero zenuen?**

**Juana Mari.** Ez. Hemen UPNren hautagaitza egitea, behar bada orain errazagoa da. Baina, orduan, beldur handia zegoen. Badakizu herrietan gehiago ematen zaiola botoa ezagutzen duzun pertsonari. Ez da Nafarroako Parlamenturako botoa ematea bezala. Zein zen betidanik herrikoa? Ni. Eta zerrendaburu jarri ninduten. Irurtzunen UPNrekin ezker abertzalea eta hautagaitza independenteren bat aurkeztu dira. Zer gertatu zen? Ezker abertzalearen hautagaitza balio gabetu zutela, eta gureaz aparte beste hautagaitzarik ez zen aurkeztu. Bakarrik gelditu ginen. Globalean, hauteskundeak irabazi genituen. Proporzionalki zegozkigun zinegotzi kopurua hartzea erabaki genuen, eta hala segitu genuen legegintzaldia. Nik ez nuen alkatea izatea espero. UPNgatik, aurre egiteagatik aurkeztu nintzen. Asko amorrarazten ninduen bakarrik ezker abertzalea aur-

kezteak, Irurtzunen UPNri botoa ematen dion jendea bazegoela nekielako. Ez zitzaidan zinegotzia izatea inporta, baina alkate? Gertatu zena gertatu zen. Zer egin behar duzu! "Goazen, tira. Jainkoak nahi duena izan dadila". Bizkartzaina izatea eskaini zidaten eta ezetz esan nuen.

**Maidier.** Ez nuen inoiz horretan pentsatu. Politikan, gure alderdiaren barruan, aritu naiz, baina ez kargu ez ezer. Kasualitatea izan zen ni alkate izatea. Nafarroa Bairen barruan, hasiera batean, ez nintzen zerrendaburua. Hauteskundeak baino aste batzuk lehenago zerrenda aldaketa egon zen eta prest ote nengoen galde-tu zidaten eta, orduan, alkategai izan nintzen. Pixka bat sorpresa izan zen.

**Camino.** Talde bezala, esperantza genuen. Zalantza asko genuen, baina ilusioa, piloa. Talde oso polita genuen. Lau zinegotzi atara ginen (hamahirutik). Boto gehien izan zuen zerrenda izan ginen eta, horregatik, izan nintzen alkate. Esperientzia polita, gogorra, pertsonalki aberasgarria eta interesgarria izan zen. Lehe-

**"GUZTIAZ INFORMATUA EGOTEA GUSTATZEN ZAIT. POLITIKARI ARRETA JARTZEN DIOT"**  
JUANA MARI MARTINEZ

nago zinegotzi izan nintzen legegintzaldi bat, Emilio Boulandier Maiza alkate zela. Ezagutzen nuen udala.

**Herriko aurreneko emakumezko alkate izan zinen?**

**C.** Bai. Gainera, lehen emakumezko alkate izanda oso-oso gauza polita izan zen: San Pedro egunean dantzatu beharreko zortzikoa lehendabiziko eztabaida izan zen. Zortzikoa mutil dantza bat da. Ea zeinek dantzatu behar zuen. Nik argi nuen: "emakumezkoa naiz, bai. Eta zortzikoa mutil dantza da, bai. Baina San Pedroko zortzikoa herriko alkateak dantzaten du, eta alkatea ni naiz". Eta dantzatu nuen. Eta hortik aurrera inolako problemarik ez zen izan.

**M.** Kintoen bazkari batean lagun batek hori aipatu zuen. Ez nintzen oso kontziente lehen emakumezko alkatea izan behar nintzela. Etxarri Aranatzen 2007a baino lehen emakumezko alkaterik aurretik egon ez izana pixka bat bitxia da, beste leku batzuetan egon zirelako.

**JM.** Bai. Eta uste dut bakarra naizela. Orain normalagoa da, baina hautagaitzetan ez zen emakumezko aurkeztu. Azken urtetan ikusten dira emakumezkoak, baina ez zerrendaburu gisa.

**Aurretik, politikarekiko zer interes eta sentimendu zenituen?**

**M.** Beti interesatu izan zait. Gainera, aita (Migel Angel Goñi Ixurko) alkate izan zen eta



## Juana Mari Martinez Jaunsaras

Irurtzuno alkatea izan zen 2003 eta 2007 urteen artean. UPNko zerrendaburua izan zen. Irurtzunen egon den emakumezko alkate bakarra da.

etxean... Aitari beti interesatu zaio eta niri ere. Gero ikasketak: soziologia, pixka bat euskararen inguruan, politika...

**C.** Bai, betidanik, Franco garaitik, klandestinitatetik.

**JM.** Niri politika betidanik gustatu izan zait, baina beste gauza batzuk bezala. Guztiaz informatua egotea gustatzen zait. Politikari arreta jartzen diot. Orain gutxiago interesatzen zait. Uste dut orain guztiaz gehiago paso egiten dudala (barrez). Gazteago zarenean: hau atara da, bestea atara da... Betidanik gustatu zait, sikiera jakitea! Sekula ez naiz alderdi bateko afiliatua izan, baina ni UPNkoa naiz.

**Gaituta ikusten zenuen zure burua?**

**C.** Bai. Ez bakarrik nigan konfiantza handia nuelako, batez ere taldea osatzen genuen pertsonengan nuen konfiantza. Ni ba-

karrik ez nintzen ezer. Bagenuen taldea, zerrenda osoa. Baina atara ginen lehendabiziko laurak oso indartsuak ginen. Talde lana garrantzitsuena da. Alkatea ikusten da, baina alkatearen atzean gauza pila daude.

**M.** Prestakuntza aldetik eta nuen eskarmentuagatik, bai. Ez nuen erakundeetan esperientziarik. Berez, alkatea da ikusten den figura, baina ez du dena egiten. Lantalde bat dago eta bakoitza atal batez arduratzen zen. Aita eta Arantza Artieda Igoa zeuden zerrendan. Konfiantzazko jendea zegoen eta lana banatzen genuen. Bestela, alkate izateko jakin behar dituzu legeak, hirigintzaz eta gauza askoren inguruan jakintza izan behar duzu. Den-dena ezin duzu jakin. Ondoan gai horietaz dakiten eta lagundu dezaketen pertsonak izan behar dituzu. Guk erabaki guztiak taldean hartzen genituen. Zenbait erabaki egun batetik bestera hartu behar dira eta idazkariaren aholkuekin hartzen ziren. Baina, orokorrean, talde lanean aritzen ginen, eta hala erabakitzen genuen.

**JM.** Bai. Zinegotzi izateko ideia nuen, ez alkate.

**"ALKATEAK EZ DU DENA EGITEN. HOR LANTALDE BAT DAGO ETA BAKOITZA ATAL BATEZ ARDURATZEN DA"**  
MAIDER GOÑI



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea · Olazti

**GIDARIDUN LEHIO BERRIAK**  
Mugarik gabeko estetika moderna

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea





## Maider Goñi Errazkin

Etxarri Aranazko alkatea izan zen 2007 eta 2011 urteen artean. Nafarroa Baiko zerrendak eraman zuen alkatetzara. Herriko aurreneko emakumezko alkatea izan zen. Gerora izan dira gehiago.



## Camino Mendiluze Arregi

Altsasuko alkatea izan zen 1999 eta 2003 urteen artean. Euskal Herritarrok hautagaitzaren zerrendaburu izateak bihurtu zuen alkate. Herriko emakumezko alkateen katearen aurreneko begia.

### Erreferentea zen emakumezko politikariren bat zenuen?

**JM.** Egunerokoan, Nafarroan, emakumezkoak beti agindu dugula uste dut. Hau da, Nafarroako gizartea beti izan dela matriarkala. Ama da agintzen duena. Egia da orain emakumezko gehiago ikusten direla. Orduan, normala iruditzen zitzaigun: "aurkezten ziren, ba, tira!" Hala ere, gutxi ziren aurkezten zirenak, bigarren lerroan beti. Gure hautagaitzan uste dut bizpahiru ginela. Zeren beste emakumezko batzuei ere proposatu nien zerrendan aurkeztea. "Ez, ez, ez. Beldur handia ematen dit, eta beste". Ez zuten sartu nahi.

**M.** Bereziki, ez. Festak zirela eta, gogoratzen dut Nafarroa Baiko politikari batekin konparatu nindutela.

**C.** Ez dakit. Ez zait inor bururatzten momentu honetan.

### Emakumezkoak erabaki guneetan egoteak zer garrantzia du?

**M.** Handia. Iruditzen zait, orokorrean, emakumezkoek zenbait aspektutan gizonezkoengandik ikuspuntu desberdina dugula. Herrian hainbeste ez da nabaritzen gauza oso zehatzak direlako: hirigintza... Baina politikako maila altuago batean, bai. Beharbada topiko bat da, baina emakumezkoak zentratuagoak gara, gauzak nola egin gehiago pentsatzen dugu... Orokorrean, gero denetarik dagoelako. Bestela, ez dut desberdintasunik ikusten.

**C.** Orain askoz normalizatuagoa dago gaia. Betidanik bizi izan

naiz politikan sartuta. Urteak ditut eta Franko bizirik zegoenean ere guk klandestinitatean lan egiten genuen, politikagintzan batez ere. Horregatik, niretako normala izan da. Alkatetzara hartu genuenean: emakumea, ez-konduta, lanarekin, semeak... Baina nik argi nuen politikagintzan mugitzen baldin baginen, politikan ere egon behar genuela. Leku guztietan.

**JM.** Oso garrantzitsua da. Nire irudipena da, orokorrean, egiten duen guztian, arlo guztietan emakumezkoa oso aktiboa dela. Haiek egoteak gizonezkoak ere estimulatzeko dituzte.

### Erakundeetan emakumezkoen presentzia hutsarekin berdintasuna lortzen da?

**C.** Eeez. Emakumezkoen lanagatik lortzen da berdintasuna; ez bakarrik presentziagatik. Emakumezko horiek zer egiten duten, zer bideratzen duten... Emakumezko pilo erabat matxista dira, bai (barrez).

**JM.** Eeez. Ausartu beharra dago ere. Hau da, gizonezkoa edo emakumezkoa izan, gauzak egiteko izpiritua izan behar duzu. Ez da berdinduko, baina pauso handi

**"BATEZ ERE  
TALDEA OSATZEN  
GENUEN  
PERTSONENGAN  
NUEN KONFIANTZA"  
CAMINO MENDILUZE**

tan berdintzen ari da. Buruan sartu behar zaizu. Garai bakoitzak bere aurrerapenak eta istorioak ditu. Eta, pitteka, buruan sartzen joaten zaizu. Erakundeetan makina bat emakumezko dago gaur egun, ia denetan. Azkarrak gara! (barrez).

**M.** Ez, berez, horregatik bakarrik ez da lortzen berdintasunik. Gainera, badugu emakumezkoaren kontzeptu bat. Badaude zenbait emakumezko haien pentsaera ez dela beharbada feminista. Nahi eta nahiez emakumezkoa izateak ez du esan nahi feminista izan behar duenik. Edo alderantziz; gizonezko feministak daude. Kontua da legeak ezartzen duela zerrendak parekideak izan behar dutela, erdi eta erdi izan behar direla. Badakit batzuetan zerrendak ezin bete egon direla, erdi eta erdi izateko. Azken aldian errazagoa da, baina garai batean kosta egiten zen. Ez dakit zergatik, ez ziren hainbeste emakumezko aurkezten zerrendetarako, behintzat nire alderdian eta Nafarroan.

### Udal jarduera eta zaintza. Kontziliario lan gehiago eskatzen zaie emakumezkoari?

**M.** Ni ez, baina Artieda ama zen. Alkateordea zen eta udaletxean ordu asko egoten zen.

**C.** Ez zidan lan gehiago eskatzen. Benetan, ez. Bikoteari betidanik esan eta eskertu behar izan diot. Udalean nengoen bitartean etxean ez nuen inolako problemarik, ondoan nuen gizonezkoak egiten

zuen egin behar zuen guztia. Jakina, nik ere etxean gauzak egiten nituen, baina bere laguntza nuen.

**JM.** Udalean sartu nintzenean etxetik kanpo lan egiten ari nintzen eta gero utzi nuen. Nik ongi

kontziliatu nuen etxetik kanpo lanik egiten ez nuelako. Ordu-rako seme-alabak kokkortuta zeuden, eta senarrak Inasan lan egiten zuen. Herrian bertan egotean laguntza handia duzu: familia. Baina ederki asko moldatzen nintzen. Gainera, herri bat ez da hiriburua bezala. Ez da gaur egun bezala: biak lanean, beharbada lan txanda desberdinetan, uztartzea? Beno, beno. Seme-alabengatik konturatzen naiz askotan zaila dela familia eta lana uztartzea. Arazoa kontontzeko niri laguntzea dagokit orain.

### Emakumezkoak erakunde politikan parte hartzeko zein dira trabak?

**JM.** Nik uste lasai asko sar daitezkeela. Nahi baduzu, orain ez dago inolako arazorik. Izatekotan: "zertarako sartuko naiz ni hor, seme-alaba txikiak ditut", hori eta beste. Haurrak norbait zain ditzake. Gainera, ez da lehen bezala, zazpi edo zortzi seme-alaba izaten zituztela; edo bat bera ere ez, edo bat edo bi dituzte. Eta trabak daudela badio, pausoa ematera animatzen ez zarelako da.

HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU »



C. Nik ez dakit, benetan, nire esperientzia berezia den ala ez. Nik ez dut inolako problemarik izan. Beste emakumezko batzuk, ez dakit. Beharbada bai: kontziliazioa, hori nola bideratu... Batez ere nire belaunaldian. Baina nik ez dut halako arazorik bizi izan. Askok aurreratu dugu eta orain ez dago arazorik emakumezkoak politikan parte hartzeko. Baina ez dakit ni mundu honetan bizi naizen (barrez).

M. Ez dut uste traba-traba jartzen zaienik. Ez dakit edo interes falta edo zer... Esaterako, ni alkate nintzela, Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioak antolatutako prestakuntza saioak genituen eta emakumezko bakarretakoa nintzen, bizpahiru izan ginen. Zergatik, ez dakit. Nik ez dut inolako oztoporik izan alkatezarako edo besterako. Gehiago interes falta izan da. Niri interesatu zait, baina inoiz ez dut kargu batean egoteko lan egin, nire alderdiaren barruan edo dena delakoan. Orain emakumezko gehiago daudela ikusten dut. Beharbada bidea zabaldu eta gero gehiago animatu dira? Ardura handia ere bada, eta ardura hori hartzea kostatzen da. Aurrekoan ikusi nuen telebistan, ez bakarrik emakumezkoak, zenbait herrietan udal ordezkari izateko ez da inor ere ez aurkeztzen. Herri batean, eta herriaren arabera, "gatazkak" sortzen dira. Egia esan gure legegintzaldia alderdi askotan oso gatazkatsua izan zen.

**Emakumeek erakundeetan duten lidergoa desberdina da?**

C. Pentsaeraren arabera. Rocio Monasterio (Vox-eko politikaria) emakumezkoa da, baina bere lidergoa ez nuke eredu gisa jarriko. Ezkertiarrek garen emakumezkoak, beharbada, gauzak kudeatzeko orduan lasaiagoak gara.

JM. Emakumezkoa aktiboagoa da denetarako. Gizonezkoek beti hor egoteko ohitura izan dutenez, pixka bat axolagabeagoak dira, eta, orain, esnatu beharra du emakumezkoa heldu delako, aktiboagoa. Gizonezkoari ongi heldu zaio emakumezkoak kategoria bat izatea. Lehen, beharbada, ez zenuen horrela ikusten.

M. Bai. Beharbada salbuespenak daude. Baina emakumezkoek gauzak kudeatzeko beste modu bat dugu, estrategikoagoa edo, ez dakit nola esan. Ez hain bat-batekoa.

**Erakundeetako boterea maskulinoa da?**

JM. Gero eta gutxiago (barrez). C. Oraindik bai, oso. Oraindik ez da ezta planteatzen Espainia mailan emakumezko presidente bat izatea. Nafarroan badugu. Autonomia elkarteetan badaude emakumezkoak... Gero eta gehiago. Gero eta argiago dago han gaudela, eta gure lekua dugula. Ez digute lekua eman behar. Badugu lekua.

M. Gaur egun, oraindik bai. Gehiago handia gizonetzkoak dira. Baina gizonetzko feministak daude, eta alderantziz ere. Baina, bai, oraindik oso urruti gaude. Alde batetik, oztopoa izan daiteke. Bestetik, orain ez hainbeste, baina, beharbada, emakumezkoen aldetik interes falta edo egon daiteke. Nerabeen irakaslea naiz eta bai neskek, bai mutikoek ez dute ez kezkarik ez ardurarik horren inguruan. Oraindik hamazazpi-hemezortzi urte dituzte. Baina adin horrekin oso desberdinak ginelatzen uste dut. Ez dakit paso egiten den garai batean ote gauden, ez gara apenas mugitzen. Frantzia jubilatzea dela eta sortu den mugimendua, biolentzia kenduta, miresgarria iruditzen zait. Hemen halakorik ez zela egon iruditzen zait. Oso konformista gaude, kexatu-kexatzen gara, baina, azken finean, ez gara asko mugitzen.

**Nola handitu emakumezkoen parte hartzea?**

C. Haurrak txikitatik berdintasunean hezten badira emakumezkoen parte hartzea handiagoa ikusiko da. Heziketan hori lantzen da. Nire garaian eskolan lantzen zen eta, orain, institutuan gero eta argiago dute landu behar dela. Gainera, neskek gero eta kontzientzia handiagoa dute. Ilobengan ikusten dut. Neskek ez dira utziko.

M. Guztia bezala, heziketarekin eta hezkuntzarekin ikusteko handiagoa du. Nerabeen artean ere interesa piztu behar da. Jende askok uste du zerbait eginda ere ez duela ezer lortuko. Eta horrek paso egitea eta konformismoa sortzen du. Ez dut esaten udalean egoteagatik konponduko dituzula; lau urteetan ere ezin dira mirariak egin. Batez ere maila altuko politikari lana oso prestigiatuta dago, eta normala da horretan parte hartu nahi ez izatea. Baina utzita ere ez dugu ezer konpontzen.

JM. Alderdiak zerrendak egin behar dituzte, eta zerrendan joan nahi dutenek kontuan izan behar

dituzte. Zeren hori zen UPNren arazoa: inork ere ez zuen hautagaitzetan sartu nahi. Nahikoa beldur zegoen. Prest daudenekin zerrenda osatu eta bakarren batek buruan joatea nahi badu, ados



**"GIZONEZKOA EDO EMAKUMEZKOA IZAN, GAUZAK EGITEKO IZPIRITUA IZAN BEHAR DUZU"**  
JUANA MARI MARTINEZ



**"EMAKUMEZKOK ZENTRATUAGOAK GARA, GAUZAK NOLA EGIN GEHIAGO PENTSATZEN DUGU..."**  
MAIDER GOÑI



**"EMAKUMEZKOK, BEHARBADA, GAUZAK KUDEATZEKO ORDUAN LASAIGOAK GARA"**  
CAMINO MENDILUZE

badaude, hura jarri eta kitto. Nire ustez, gaur egun, zerrendetan aurkezteko ez dago inolako arazorik. Ez badute izena ematen da gogorik ez dutelako. Jendeak dio: "ez dut arazoetan sartu nahi, hau eta beste". Pixka bat nagia da.

**Udal koxkorretako hauteskunde zerrendetan parekidetasuna egotea behartzen du legeak. Udal guztietarako izan beharko luke?**

JM. Jendeak horretan pentsatzen du? "Emakumezkoa zarelako, zerrendan sartzeko?" Bakarren bat animatu daiteke: "Beno, bale, emakumezkoak ez dagoenez..." Balio duena jar dadila. Berdin zait gizonetzko edo emakumezko izan. Faboritismoa ez. Balio duena: azkarrago dela, antolaketan hobea duela, gehiago balio duela... balio duenak. Gero gerta daiteke balio zuela uste zenuen hori okerrena izatea. Emakumezkoak parte hartzea oso-oso garrantzitsua da; parte har dezate, zerrendaburu ez bada ere.

C. Behartzea ez zait asko gustatzen. Baina emakumezkoek erraztu behar zaie, batez ere herri txikietan. Herri txikietan, beharbada, kontziliazioa, lana eta abar askoz zailagoa izango da. Baina ez dakit, ez dut esperentziarik.

**Babesik sentitu zenuen?**

C. Bai, bai, bai.

JM. Taldearena, bai. "Lau katu" ginen. Soilik gure hautagaitzari zegozkion zinegotziak hartzean udal batzarrak eta batzordeak bakarrik egiten genituen. Nola edo hala pasa genuen legegintzaldia.

M. Ez. Gurea legegintzaldi gatazkatsua izan zen. Gure alde egon eta botoa eman zuen jendea egonda ere, ez nuen babes asko sentitu. Ezker abertzalearen zerrenda legez kanpo utzi zuten eta udalean gu bakarrik geunden. Guri zegozkion zinegotzi karguak hartu genituen. Informazioa ematen genuen, baina badakit ez dela gauza bera. Aparte, barne arazo handiak zeuden. Terrorismoaren aurkako biktimen elkarteak ere helegitea jarri zuen gu udalean egon baina 20 urte lehenago hartutako erabaki bat ezeztatze eskatuz, ETako kide baten izendapenaren inguruko. Guk hartu ez genuen erabakia ez dugu ezeztatuko. Horrela lau urte.

**Emakumezko izateagatik zurekin nagusikeriaz edo bestela jokatu zuten?**

JM. Ez, inolaz ere ez. Pixka bat agintzailea naiz (barrez). Ez nuke utziko. Tirabiraren bat suertatu

izan zait. Aurpegia eman behar bada, ematen dut, nonahi eta nolana.

M. Mesprezatu ez, baina gorripatu edo ongi sentiarazi, bai. Pentsaerakoren bat edo prestakuntza saioen bat genuen, eta beharbada emakumezko bakarretakoa nintzen, eta hor oso babestuta sentitu nintzen.

C. Bai, batez ere, herriko jendeak. Betidanik ezaguna nintzen, jende askok txikitatik ezagutzen ninduen. Batzuek udaletxera kexaka joaten ziren eta "mocosa" eta guzti deitu zidaten (barrez). Gizonezko batzuk. Baina hori pertsonak ezagutzea da.

**Ardura uztean zer sentitu zenuen?**

C. Alde batetik, lasaitasuna. Bestetik, amorrua. Ilegalak ginen. Horregatik utzi genuen. Bestela, guk beste legegintzaldi bat nahi genuen, hasita genituen lanak bukatu ahal izateko. Nire betiko lanera bueltatu nintzen. Maistra nintzen eta hala jarraitu nuen.

Argi nuen udala utzi eta eskolara joan behar nuela. Hori zen nire lanbidea. Gainera, betidanik oso gustura egon naiz eta asko gustatu zait, jubilatuta arte. Alkatezkatik pedagogia lana egitea tokatu zait (barrez). Baliagarria izan zen lanbidea udaletxean gauzak nola edo hala bideratzeko.

JM. Hau bakea! Senarra hil zen. Orain seme-alabak ahal dudana laguntzen ditut.

M. Libre sentitu nintzen. Ahal genuen guztia egiten saiatu ginenaren sentipena nuen. Baina denboragatik eta genituen kontuengatik nahi genuena egiteko betarik ez genuen izan. Ahalegina egin genuen. Ahal izan genuen hobekien egin genuen.

**Bueltatzeo tentaziorik izan duzu?**  
M. Hurrengo legegintzaldian zinegotzi izan nintzen, oposizioan. Betiko bete ninduen. Orduz geroztik ez naiz izan. Orain lasaigo. Gainera, haurrak eta. Beharbada hemendik urte batzuetara, baina, tira.

JM. Ez, bat bera ere ez. Betidaniko irurtzundarra naiz, eta herriaren aldeko guztia pozik egiten dut. Laguntzeko premia handia balego lagunduko nuke. Baina ez dut saltsa horietan sartuta ibiltzeko adinak, ez. Lan handia dut. C. Ez, ez, ez, mesedez. 70 urte ditut. Gauzak bere garaian ongi daude. Ni baino askoz gazteagoak direnen garaia da. Politika eta hori guztia jarraitzen dut, gus-tura. Baina ardura hori berriro hartzeko, ez (barrez).



ASTEKOA

RAF ATXURI

## Jendarte nekatu batean

Badira bizitzan barrena bereganatzen ditugun irudipen, bihotzondoko, sentsazio eta aldarreak, gogoan finkatzen diren iraupen luzeko hautemate dexente, baina hitzetan nekez hesitzen ditugu, eta berba zehaztuetan batu arte eremu lausoan gelditzen dira.

Horiek horrela, Kontseilua-ko Idurre Eskisabel idazkari nagusi berriak elkarrizketa batean gordin bezain natural bota zuen perpausa: "jendarte nekatu batean bizi gara". Eta nik esaldia nuen maite.

Izan ere, diagnostiko egokia iruditzen zait euskal (baita erdal, latu senso) gizarte(et)an somatzen den akidura edo pattalgogoa deskribatzeko. Apika egostaldi aztoratu batean hazi ginen Parisko maiatzaren eta kontrakultura giroaren ondorioz etorritako umeok: auzo elkarreak, feminismoa, antimilitarismoa, nazio emantzipazioa, ekologiarekikoak, euskalgintza, irrati libreak, gazte asanbladak, herri festak, gaztetxeak eta mota guztietako hamaika mila ekimen, bilgune eta saretze.

Militantzia, konpromezua (sic) eta ardura ziren kontzeptu handi eta serios horietako batzuk, kontziliazioa eta zaintza, artean aintzat hartu gabeko eremuak. Masa kultura ekintzaile eta eraikitzaile bat agertu zen ahalegin eta neke ugariz, baita hamaika beso eta irrikaz. Bi belaunaldi joan dira geroztik, eta nago kontsumismoa (ezen ez kontsumo), teknologia, irudia, lehia, presaka ibiltzea, espektakulua eta individualismoa direla orain zerbitzatu beharreko kontzeptu berriak. XX. mendeko azken herenean altxaturiko jendarte sarea desegiten ari da. Hainbat ekimen sozial eta herrigintza proiektutan erreborik ez dago. Pandemiak lanbide honetan ez zuen deus eman, ez kendu.

Kontuak kontu gizarte berri bat osatzen ari da, lehenagoko aitzur lan eta izerdirik gabe. Chat-gpt deritzanak beharbada diseinatu eta definituko digu ernatuko dena.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

## HARA ZER DIEN

### SAGA?

**O.G.A (OLAZTIKO GAZTE ASANBLADA)**  
Zer da SAGA? Zergatik ez dira Sakanako Gazte Asanbladak jarduerak antolatzeko elkartzeko? Non geratu da lehen existitzen zen harremana?

Baina, zer da harremana? Bada, harremanak honako hau esan nahi du: "Iz. Pertsonen edo pertsona multzoen artean gertatzen den eragin trukea edo komunikazioa". Hortaz, gaztetxeen artean harremana izatea onuragarria dela deritzogu, edozein jardunaldi egiterako orduan materiala elkarbanatu dezakegulako, laguntza behar dugunean

elkarri eman diezaioketugulako, arazo baten aurrean indartsuagoak garelako eta elkarrekin aurrera egitea errazagoa delako.

Duela urte batzuk Sakanako Gazte Asanbladen arteko hartu-emana ematen zen baina konpromiso faltagatik eta denboraren poderioz hau galdu egin da. Gaur egungo egoera guztiz ezberdina da; elkarri fabore bat eskatzean askotan erantzuna ezezkoa delako edota guk geuk antolatutako ekintza eta ekitaldiak elkarri zapaltzen dizkiogulako. Hau, gure arteko

komunikazio faltagatik gertatzen da, non bakoitza bere kabuz joaten den eta ez dugun gaztetxe bakoitzak antolaturiko egutegiaren berri.

Horregatik guztiagatik, erlazio berri bat sortzea guztiz mesedegarria dela uste dugu eta hausnarketa honen bitartez Sakanako Gazte Asanbladen arteko harremana eraikitzaile gonbidatzen ditugu Sakanako gaztetxe guztiak.

Batera indartsuagoak garelako, gora Sakanako Gazte Asanbladak!

## OBJEKTIBOTIK

**Euskal Herrian Euskaraz**  
@EHEbizi  
Bada garaia  
#EuskaraOfiziala  
eta kitto!



**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

**GK diseinu zerbitzua:**

Ainara Santiago Langarika  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
948 564 275 (3 luzapena)  
619 821 436  
Ainhoa Etxeberria Pikabea  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)  
618 640 056

**Administrazioa:**

Gema Lakuntza Lopez  
[admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)

**Zuzentzailea:**

Joxe Aldasoro Jauregi

**Lege gordailua:** NA-633/1995

**Tirada:** 3.200

**Publizitatea:**

Eneida Carreño Mundiñano  
[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

**Koordinatzailea:**

Goizeder Anton Iturralde  
[fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)

**ARGITARATZAILEA:**

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
618 882 675

**Erredakzio burua:**

Alfredo Alvaro Igoa  
[guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)

**Erredakzioa:**

Maidier Betelu Ganboa  
[kirolak@guaixe.eus](mailto:kirolak@guaixe.eus)  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
[kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

**Maketatzailea:**

Iune Trecet Obeso  
[maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



**Gobierno de Navarra**  
**Nafarroako Gobernua**



## EH BILDU

## "Bere burua gobernatuko duen Nafarroa eraiki nahi dugu"

LAURA AZNAL EH BILDU NAFARROA

Datorren maiatzaren 28an Nafarroako Foru Hauteskundeak izango dira. Asko dago jokoan. Nafarroa irekiagoa, euskaldunagoa, demokratikoagoa eta, azken batean, justuagoan aurrera ala atzera egiten dugun.

Ezina ekinez egiteko gai garela erakutsi dugu Nafarroako herritarrok. 2015ean hamarkada luzez Nafarroa gobernatu duen zuen eskuin atzerakoi, klientelar eta antieuskaldunari alternatiba aurrerakoi bat eraikitzeke gai izan ginen. Ezberdinen arteko adostasunak eraikiz eta herritarren aldaketa gogoari ahotsa emanez.

Aurrerantzean ere, sinetsita nago EHBildu eskuinari atek behin-betiko itxi eta bide horretan indar erabakigarria izango dela.

Gure lehentasunak jendartearen gehiengo zabalarekin bat datoz, zalantzarik gabe. Batetik, erronka sozial, ekonomiko eta ekologikoaren aurrean, politika publikoen benetako eraldaketa bultzatzea, herritarren eta lurraldearen beharrak erdigunean jartzeko. Bigarrenik, herritarrei alternatibak eskaintzea ezberdinkeria sozialen aurrean, zerbitzu publikoak indartuz eta eskubideak zabalduz.

Eta orain jauzi berri bat eman nahi dugu Nafarroa justuagoa, demokratikoagoa eta berdinzaleagoa eraikitzeke. Datorren legegintzaldia funtsezkoa izango da aurrean ditugun etorkizuneko erronkei heltzeko eta Nafarroako herritarrek izan behar dute hitza eta erabakia.

Izan ere, bere burua gobernatuko duen Nafarroa eraiki nahi dugu.



Nafarroako jendarteak behar dituen politika guztiak gauzatzeko eskumen eta tresna gehiago izan nahi ditugu. Nafarroako jendarteak erabakitzeke subjektu politikoa da eta bere etorkizunaren jabe izan behar du. Estatuarekin zein Euskal Herriko gainontzeko lurraldeekin nahi dugun harremana erabakitzeke eskubidea badu.

Beste ezerekin ginetik, Nafarroa eta Euskal Herria maite ditugu. Eta egin, egingo dugu zeuk ere maite duzun herria. Amaitzeko, datorren larunbatean, maiatzaren 20an, 19.00etan Sakanako ekitaldi nagusira gonbidatu nahi zaitut.

Maite duzun Sakana egiteko, bozkatu EH Bildu! Adecitasunez.

## GEROA BAI

## "Nafarroak lidergo ausarta berreskuratu behar du"

UXUE BARKOS GEROA BAI

Geroa Baik bere sorreratik Nafarroako politikagintza iragazgaitz, gris eta itxienaren moldeak apurtzea lortu du. Mapa hori 40 urtetan zehar mugiezin egon ondoren 2015ean hari buelta ematea lortu genuen, Nafarroako lehen gobernu plural eta aurrerakoien buruan jarritz.

Geroa Bai buru izan zuen Gobernu hark Nafarroa oparo, berritzaile, plural eta solidarioago baten oinarriak jarri zituen. Aro politiko berri bat ireki zuen eta azken lau urteetan hori mantentzea lortu dugu, jarrera leial baina zorrotzarekin.

Eta orain garrantzia osoko une politiko bati egin behar diogu aurre. Nafarroak lidergo ausarta berreskuratu behar du. 2015ean Geroa Bairen eskutik hasitako politika aurrerakoien bultzada eta indarra berreskuratu behar ditugu.

2015ean hasi genuen aldaketa atzeraezina, lasaia eta eraldatzailea finkatzeko unea da. Ezin dugu atzera pauso bakar bat ere eman. Nafarroak autogobernuaren defentsa erreal eta tinkoa behar du nafarron bizitza hobetzeko; garapen ekonomiko berritzaile eta lehiakorra, baina gizarte kohesiorako eta gizarte orekarako elementu izango dena ere; etorkizunerako gako diren alorretan politika adoretso eta eraldatzaileak, hala nola, energia berriztagarrietan, autokontsumo energetikoan eta ekonomia zirkularrean.

Gure zerbitzu publikoen kalitatea sendotzeko beharra dugu, osasungintzaren alorrean bereziki, Lehen Arretaren eta itxarrote zerrenden arazoei irtenbidea emango dieten




erreformekin. Kalitatezko Hezkuntza Publikoa bermatuz eraiki behar dugu gure etorkizuna. Eta gure lurralde osoan euskararen defentsa bermatu, bake eta bizikidetzaren politiketan aurrera eginez ere eta gizarte berdinzaleago baten alde lan eginez, denontzako eskubide eta askatasunak bermatuz.

Horregatik guztiagatik, loturarik gabeko Gobernu baten buruan egoteko nire konpromiso politikoa eskaintzen dut, Nafarroaren interesak ausardiaz defendatu eta negoziatuko dituen, erronkei ekimenez, lidergoz, tinkotasunez aurre egingo diena. Ausardiaz.

Nire konpromisoa eta Geroa Bairena: gobernu ausart bat Nafarroa ausart batentzako.

ERREDAKZIOAREN OHARRA: Nafarroako Parlamentuan gaur egun ordezkatuta dauden alderdi eta koalizio guztiei espazio bat eskaini die Guaixek. Hautagai batzuk bere egin dute eskaintza.



MUSIKAZ  
BLAI


**Maite  
GARRIZ  
LEATXE**

Gizarte Integratzailea / AGOITZ

Ezetz  
asmatu  
zeintzuk diren  
bere kantu  
kuttunak  
**Piztu irratia!**

Maiatzak 19, ostirala,  
10:30etik aurrera

**Beleixe  
irratian**





Izurdiagako kontzeju etxea. ARTXIBOA

## Kontzeju etxeak premiazko berritzea behar du

Lana finantzatzeko kontzejuak dirulaguntza eskaera egin dio Nafarroako Gobernuari

### IZURDIAGA

Kontzeju etxeko "zutabeak pipiak jota daude eta bajeako zorua konpondu beharra dago. Nafarroako Gobernuaren Tokiko Inbertsioen Planera laguntza eskaera aurkeztu genuen, eta ebazpenaren zain gaude. Hala ere, kontzeju etxea, bai ala bai, konpondu beharra dago", azaldu du egoera Luis Beraza Ameztegik, kontzejuko presidentea.

Bestalde, herrian aurten eginen diren lanen artean daude Txopordi, Arranbidea eta Zapardi bideen konponketa, 2021eko abenduko uholdeek hondatutakoak hain zuzen ere. Aurreneko bi bideak porlanezkoak izanen dira. Lanen aurrekontua 47.344,54 eurokoa da eta "ia dena dirulaguntzen bidez ordainduko dugu", azaldu du Berazak. Bestetik, Arakilgo Udalak kontratatuko dituen langileak garbiketara eta berdeguneen mantentzeaz ardu-

ratuko direla jakinarazi du kontzejuko buruak.

### Inbertsioa

Izurdiagako Kontzejuak 33.330 euroko aurrekontua du aurten, haietatik 13.400 euro inbertsioetarako. Herriarena den soro batean ur baltsa egin nahiko luke kontzejuak. "Enkante bidez ematen dugu. Orain ongi dago, baina ur baltsa jarriz gero hobetu egingen da eta, aldi berean, hazi daiteke harengatik jasotako diru kopurua", azaldu du Berazak. Nekazaritza azpiegiturak hobetzeko dirulaguntza deialdian proiektua aurkeztu du kontzejuak. Gutxi gorabehera 40.000 euro inguruko aurrekontua du lanak eta foru administrazioaren bidez haren %60a ordaindu daiteke. Nafarroako Gobernuak emandako erabilera askeko dirulaguntzako 5.397,79 euroak ere bideratuko ditu kontzejuak.

# Frontoia konpontzeko dirulaguntzaren zain

Kontzejuak beste behin konponketak egiteko Tokiko Inbertsio Planari eskaera aurkeztu dio eta ebazteko zain dago. Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza deialdi horren beste sail batetik sareak eta zorua berritzeko laguntza jasoa

### ETXARREN

Aranburu frontoiak (1986ko azaroren 30ean mustua) konponketa premia du. Horren jakitun da Etxarrengo Kontzejuak, horregatik, Nafarroako Gobernuaren hainbat dirulaguntza deialditar eskaera aurkeztu dute. Alferrik. Oraingoan foru administrazioak Tokiko Inbertsio Planaren erailkinei buruzko ebazpena publiko egiteko zain daude kontzejuak, behingoagatik konponketa egiteko momentua iritsiko den esperantzaz. Migel Angel Irurtia Sario kontzejuko presidentea azaldu duenez, "pilotalekuaren iparraldean hezetasunak daude. Konponbidea paretan txapa bat jartzea da, euri urak porlana ez ukitzeko, drainatzea egitea, eta, ondoren, pareta margotzea".

Lanak egiteko kontzejuak ezinbestekoa du dirulaguntza. "Bi enpresari aurrekontua eskatu genien. Batek 100.000 euro ingurukoa eman zigun, besteak gehiagokoa. Baina eskaera egin genuenetik prezioak asko igo dira", gatzigatu du Irurtiak. Hala ere, lan horri begira ondu ditu aurrekontuak Etxarrengo Kontzejuak. 70.180 euro dira guztira eta inbertsioetara bideratzea aurreikusten diren 46.355 euroak pilotalekuko lanetarako izanen dira. "Eta gauza bera egingen dugu



Mutikoa frontoira sartzen. ARTXIBOA

gobernuak emandako erabilera askeko 5.058,99 euroekin. Dirulaguntza aurten ez badigute ematen, urtero jasoko dugun dirua horretarako gordeko dugu", argitu du kontzeju buruak.

### Lan gehiago

Kontzejuko presidentea nabarmendu duenez, bai frontoia bai sareak eta zorua jartzeko lanak Etxarrengo Kontzejuak berak egin zituen. Azken horiek duela 40 urte pasa. "Arakilgo Udala sare eta zorua berritzeko lanak herrikeria egin ditu, eta Etxarren

egitea falta den azkenetako bat da".

Nafarroako Gobernuak Toki Inbertsio Planaren barruan sartu du Etxarrengo lanak egiteko Arakilgo Udalaren eskaera. Lanek 547.807,29 euroko (BEZ kanpo) aurrekontua dute. Gobernuak zehaztutakoaren arabera, lanak aurten hasiko dira. Irurtiak azaldu duenez, "dauden sareak berritzearekin batera, telefonia, zuntza eta argindar sareak ere lurperatuko dira". Kontzeju buruak kezka azaldu du lanak egiteko epekin, estuak direlako.

**bertako**  
igogailuak | ascensores

**BENETAKO OROTARIKO ZERBITZUA**  
**100€-tik/hileko**

**IGOGAILUEN MANTENTZE-LANEN ESKAINTZA ZORROTZENA**

**+2.000 bezerok gugan dute konfiantza**

848 87 09 17  
bertako.eus





Konpontzen ari diren bideetako bat Kanpozeleikoa da.

## Dermioko hiru bide konpontzen ari da udala

2021eko abenduko uholdeek kaltetutako bideak dira eta hirurak ibaiaren ondoan daude

ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranazko Udala azken uholdeek kaltetutako dermioko Baxate-Kanpozelei, Ustiye eta Oporo bideak konpontzeko lanak egiten ari da. Bideak kaskailua-ekin konponduko direla jakinarazi du Silvia Marañon Chasco alkateak, "baina toki zehatz batzuetan porlana jarriko da", zehaztu du. Konponketak 170.000 euroko aurrekontua du. Udalak uholdeengatik estatuak emandako 81.691,59 euroko laguntza eta Nafarroako Gobernuak nekazaritza azpiegiturak konpontzeko emandako 67.517,01 euroak

ditu. Gainontzeko 20.791,4 euroak udalaren diruzaintzako soberakinetik atera dira.

Bestetik, alkateak jakinarazi du Beheko basoko bidea ere konponduko dela. Lanak San Adrian egunaren aurretik, garagarrilaren 16a baino lehen egingen dira. Han ere kaskailua zabalduko dute, baina zatiren bat porlaneztatuko dute. Lanaren proiektuak 10.000 euro balio ditu eta lanak berak beste 25.000 euro. Baso hobekuntzetarako dirulaguntza eskatu du udalak eta haren bidez aurrekontuaren %60a ordaintzea espero du.

## DUELA 25 URTE...



## Kultur etxea mustuta

Etxarri Aranazko kultur etxea maiatzaren 17an mustu zen. Udalak 119.280.000 pezetako (716.887,2 euro) inbertsioa egin zuen zinema zena kultur etxe bihurtzeko. Beheko solairuan eszena tokia handitu, 238 pertsonarendako aretoa, kultur koordinatzailearen gela, komunak eta erakusketa gela zeuden. Lehen solairuan 40 pertsonarendako anfiteatroa eta beste lau gela eta bigarren solairuan, berriz, proiektzio gelaz aparte beste bost gela. Lurpean biltegia zuen.

# AHTri lotuta, zundaketak egiteko eskaerak

Zenbait udalerritan eskaerak jaso dituztela gaztigatu du Sakana Trenaren Alde plataformak. Bitartean tren sozialaren alde ondu duten proposamena herriz herri aurkezten jarraitzen du

SAKANA

Abiadura Handiko Tren (AHT) proiektuari lotuta, "zundaketak egitea eskatu dute Arakilen eta Uharte Arakilen. Arbizun, inongo baimenik gabe, artzain baten larrean zundaketa bat egitera sartzen saiatu ziren. Badakigu horretan dabilzala", azaldu du Sakana Trenaren Alde plataformako Gorka Ovejero Ganboa kideak. Argitu duenez, aurretik, zundaketa gutxi batzuk eginda, AHTren informazio proiektu bat egin zuten eta bi ibilbide proiektu aurkeztu zituzten. "Orain zundaketa serioagoak egin nahi dituzte, eraikuntza proiektua izango dena prestatzeko, edo erabakitzeke zer ibilbide den egokiena". Plataformako kideak salatu duenez, "halako inpaktua eta kaltea sortzen duten obrei buruzko oso informazio gutxi ematen digute, eta gauzak, proiektuak eginda daudenean".

AHTren alde daudenen artean ibilbideena gatazka politikoko iturri dela gogoratu du: "Batzuk Nafarroako korridorea Euskal Y-arekin Ezkio-Itsason lotu nahi dute, batik bat, EAJk eta Geroa Baik eta PSOEek nahiago luke Gasteizko lotura, askoz ere merkeago delako". Azaldu duenez, "gu planteatzen ari garena da: triskantza ekologikoa egiten duen obra batean hainbeste diru ez gastatzea; trenbide plataforma berria egin beharrean dagoena gaurkotzea, eguneratzea eta hobetzea bertatik edozein tren mota azkarrago joateko; gure proposamena merkeagoa da; AHT-k hiri handiak lotuko ditu; herrietako geltokiak berriro zabaltzea proposatzen dugu herriei berriro ere zerbitzua emateko", azaldu du plataformako kideak, "dena onurak dira".

## Proiektua

Plataforma tren sozialaren aldeko proiektua aurkezten ari da herriz herri. Abiadura Handiko



Iurutzungo kultur etxean egindako batzarra. UTZITAKOIA

## "ERAIKUNTZA PROIEKTUA DENA PRESTATZEKO, EDO IBILBIDE EGOKIENA ERABAKITZEKO"

Tren egitasmoaren alternatiba izan nahi duen proposamena jendartean zabaltzen ari da eta, dagoeneko, bost aurkezpen egin ditu. Plataformako kideak jakinarazi duenez, Arbizun, Etxarri Aranatzen eta Ziordian hitzaldiak ematea aurreikusita dute, baina hots egiten dieten herrietara joan direla gaztigatu du. Plataformakoak "pozik" daude tren sozialaren proiektua "harrera oso ona" izaten ari delako.

AHTren kontrako borroka Euskal Herrian 30 urte bete ditu. Egitasmoari dagokionez, azaldu duenez, "Iparraldean 2042ra arte, gutxien-gutxienik, geldituta egongo da. Euskal Autonomi Erkidegoan oso aurreratuta daude obrak, baina bakarrik zementuzko azpiegitura. Hori aurrekontuen %55 da, beste %45ek gutxienik faltako zen gastatzeko. Eta hirietako sarrerak Donostian,

Gasteizen eta Bilbon ez dituzte egingo 2026 baino lehenago. Bilboko Basauri ondoan egonen da eta AHTtik jaitsi ondoren autobusa hartu beharko da Bilbora joateko. AHTk aurreratzen omen dituen minutu horiek baino askoz gehiago kostatuko zaizu autobusez Bilbora joatea".

Nafarroari dagokionez, "Zapateroren garaian esan zuten Castejon eta Arrizabalaga artean egingo zutela, beraien lehentasuna baitaesatea Iruñera AHT iritsi dela. Ordurako urte pila bat pasatuko dira. Oraindik obra gutziaren %9a baino gutxiago gastatu dute", argitu du. Gaineratu duenez, "Gero ikusi beharko litzateke Iruñetik Euskal Y-ara zer egingo luketen, zeren hemen lanak oso konplikatuak dira". Gaztigatu duenez, Next Generation dirulaguntza pilo AHT proiektuetara bideratu dira. "Ikuspegi ekologikoa eta iraunkortasuna irizpideak ziren, baina bakarrik bidaiariendako egingo diren tren plataforma eskusiboak sartu dituzte, merkantziak eramango ez dituztenak. 30 urteren ondoren EAEn onartu zuten Euskal Y-ak ez zuela merkantziarik garraiatuko".



# Milioi erdiko balioa duten bi inbertsio onartuta

Alde batetik, Dantzaleku kirol guneko ur hornidura sarea berrituko du Altsasuko Udalak. Bestetik, futbol zelaiko belar artifiziala eta argiteria berrituko ditu eta futbol zelai zaharrea futbol 7rako zelai berria eginen du

## ALTSASU

Udalak bi lan egitera 512.160,55 euro bideratzea erabaki du. Dirutza horretatik 151.352,36 euro herritik Dantzaleku kirol gunera ura eramaten duen hoditeria berritzeko erabiliko da. Javier Ollo Martinez alkateak azaldu duenez, "sare horrek, gehienbat, mikro zementuzko hodiak ditu eta oso hondatuta dago. Bere egoeratik ur ihesi ugari izaten dira. Hausturak ere maiz izaten ditu ere". Jakinarazi duenez, "igerilekuak zabaltzearekin, udan, arazoak areagotu egiten dira. Betetzerakoan edo ura aldatzerakoan uraren presioa jaisten da sare horrek hornitzen dituen Dantzaleku bitarteko etxeetan, institutuan eta ikastolan. Horrek ikastetxeetan eragozpen handiak sortzen ditu".

Horregatik, herritik kirol gunera arteko ur sarea berrituko dute. Hartan ur kontagailuak berrituko ditu udalak, urruneko irakurketa aukera ematen duten gailuak jarritz. "Erregistro kutxatiletan sarea mozteko giltzak izanen dira. Horrela, ur ihesak izanez gero, haien kontrola eraginkorra egin daiteke momentuan bertan. Gainera, ihesen bat balego, sarea sekzioetan erraz bana liteke ur ihesa erraz atzemateko", azaldu du alkateak. Lanak igerileku sasoiak despiditu ondoren hasiko dira.

Lanaren kopurua handia zenez, udalak dirulaguntza lortzeko bi eskaera aurkeztu zituen eta biak atzera bota zizkieten. Next Generation funtsetan "deialdiaren muga gainditzeagatik". Nafarroako Gobernuaren Tokiko Inbertsioen Planaren bidez Ameztiako ur biltegiaren eta herriaren artean sarea berritzeko udalak laguntza jaso zuenez, dirulaguntza horrekin Altsasuko Udalak gehienezko kopurua lortu zuen eta 2026-208 deialdira zain egon beharko luke. "Lan egitea premiazkoa da, ur sarearen matxu-



Dantzalekuk Sakanako Mankomunitateak antolatutako futbol campusa hartu zuen.

## ENTRENATZEKO ETA DENONDAKO ERABILGARRI EGONEN DEN FUTBOL 7 ZELAIA EGINEN DA ERE

rengatik aipatutako etxeak eta ikastetxeak ezin dira urrik gabe gelditu. Horregatik, lana udalaren diruzaintzako gerakineko diruarekin ordainduko dugu. Hala ere, ur hornidura sare bat berritzea denez, ordaindu beharrekoaren BEZa kengarria da", argitu du alkateak.

### Futbol zelaia

Dantzalekuko futbol zelaiak 2010az geroztik du belar artifiziala. Erabileraren poderioz hondatu da eta arazoak sortu ditu. Esaterako, futbol entrenamendu eta partidetan hainbat lesio izan dira. Horren jakitun egin du Altsasuko kirol elkarteak udala. Baita egungo argiteria azpiegitura eskasa dela urteko zenbait hilabetetan eta ordutan, ondorioz, "partidak jokatzeko arazoak izan dira eta hala jakinarazi du federazioak".

Horien jakitun, eta "kontuan izanik Altsasuko kirol elkarteak 18 talde eta 330 jokalaririk dituela, sekula baino gehiago", Altsasuko Udalak lanok egitea erabaki du. Ollok jakinarazi duenez, "horiekin batera, futbol zelai zaharrea futbol 7ko zelai bat eginen da. Horretarako, ura drainatzeko sistema eta futbol ateak jarri eta gaur egungo futbol zelaitik kenduko den belar artifiziala berrerrabiliko da". Alkateak jakinarazi duenez, "futbol 7ko zelai berria entrenamenduetarako erabiliko du klubak. Baina edozein herritarrek erabiltzeko aukera ere izanen du. Berrituko dena, berriz, entrenatzeko eta partida ofizialak jokatzeko erabiliko dute.

Lan horiek 360.808,19 euroko aurrekontua dute. Haietatik 253.589 euro Nafarroako Gobernutik zuzenean jasoko ditu udalak, Geroa Baik aurtengo aurrekontuei aurkeztutako emendekin baten bidez jasoak. Lanak ordaintzeko gainontzeko 107.219,19 euroak diruzaintzako gerakinetik aterako ditu udala. Lanak garila hasierarako martxan nahi dituzte, festen ondorengorako bukatuta egoteko.



Ikasleak lantegian hondakin kudeaketari buruzko azalpenak entzuten. MANK

## Birziklatze ikasgaia Agoizko EcoIntegra lantegian

Lanbide Heziketako 30 ikaslek tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak nola tratatzen diren ikasi dute

### SAKANA

Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuko Hezkuntza Hezten Programaren barruan, Lanbide Heziketako Sistema Mikroinformatikoak eta Sareak eta Mendekotasun egoeran dauden pertsonendako arreta ikasten ari diren 30 ikaslek ASPACE Agoitzen duen lantegia ezagutzeko aukera izan dute. EcoIntegrako 65 langileek tresna elektriko eta elektronikoen 8.000 tona inguru kudeatzen dute urtero. Lantegira sartzen diren materialen %93 berreskuratzea lortzen dute, soilik %7 deusestatuz.

Horretarako lantegian hiru lan-lerro dauzkate: hotz-aparatuak tratatzeko, gainerako etxetresna elektrikoak (garbigailuak, ordenagailuak, mikrouhinak...) tratatzeko eta TRC monitorea eta pantaila lauak tratatzeko. Lantegiaren bereizgarria da hotz-aparatuaren lerroa da, han

etxetresna horiek dituzten osagai kutsatzaileak berreskuratzen baitituzte: konpresorean dagoen olio eta gasa eta hotz aparatuen egituraren barne dagoen gasa. Hiru lerroetan berreskuratzen dituzten materialen artean daude: letoia, burnia, altzairua, kobrea, aluminioa, hainbat plastikoko mota, kartoia, gomak, egurra, porexpana, telebisten beira... Lortutako lehengai horiek hainbat berziklatze enpresetara bideratzen dituzte.

Ikasle eta irakasleek "oso positiboki" baloratu zuten bisita. Hondakin Zerbitzutik, gaztigatu dutenez, "EcoIntegran bisitak jasotzeko irrikitan daude, egiten duten lana ezagutarazi nahi baitute. Zerbitzutik ere oso aberasgarria irudituzte zaigu esperientzia eta, horregatik, hurrengo ikasturtera begira Sakanako ikastetxeak horrelako irteerak egitera animatzen ditugu".

www.promocionesamayna.com

IRURTZUN BERRI

948 071 935

kaxeta

LIBURUDENAK

@Kaxeta Liburu denda

www.kaxeta.net

628 542 519 | 948 460 477



Olaia Ferrero Marin, Eneritz Moreno Gomez, Ekhiñe eta Nagore Gallardo Martinez, Nahia Galbete Mata.

# Sexualitate ikuspegiak film laburretan jasoak

Gozamenez programaren baitako film labor lehiaketako hiru sariak banatu dituzte. Lehiaketaren helburua da sexualitateari buruzko bizipen eta ikuspegi propioak islatzea eta transmititzea

## ALTSASU

Film laburren lehiaketa antolatu zuten Gozamenez programak eta Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak. Intxostia gazte gu-neak GozaGala hartu zuen ostiralean, Gozamenez film laburren sari banaketa. Gazte gunean elkartu zen publikoak lehenik lehiaketara aurkeztutako bost

ikus-entzunezkoak ikusteko aukera izan zuen. Emanaldiaren ondoren antolatzaileek hiru sariak eman zituzten. Altsasun saritutako bi lan Nafarroako Gozamenez lehiaketara aurkeztu zituzten egileek. 12 eta 17 urte artekoen mailan lehiatu ziren biak. Iruñean maiatzaren 5ean egindako sari banaketatik esku

hutsik etorri ziren, baina ederki pasa ondoren. Lehiaketara aurkeztutako lanak [www.altsasu.eus](http://www.altsasu.eus) eta [www.gozamenez.com/eu](http://www.gozamenez.com/eu) web orrietan ikusgai daude, baita Intxostiapunta gazte gunearen You Tubeko kanalean ere.

Gozamenez programa ezagutzen du boskote sarituak eta antolatzen diren beste jardueratan batzuetan

parte hartu izan dute. Saritutako guztiak estreinako aldia zuten film laburren lehiaketan. Sariaren gozoak parte hartzea errepikatzen asmoa piztu dio boskoteari. Ingurukoek, senide eta lagunek, haiek egindako ikus-entzunezkoak ikusi dituzte. Orokorrean iritzi positiboak jaso dituzte haiengandik. Olaia Ferrero Marinek azaldu duenez, "kritika positiboak eta hain positiboak ez direnak jaso ditut. Horiek kontuan izan ditut film laburra hobetzeko, eta, azkenean, nahiko ondo gelditu zait". Nahia Galbete Matak bietako iritziak jaso ditu ere, "esan didate mezu bat bidali nahi nuela".

## Eragina

Ingurukoek ikus-entzunezkoak ikusi ondoren sexualitateari buruzko elkarrizketarik ez dela sortu azaldu dute. Saritutako film laburretan, besteak beste, agertu diren gaiak dira sexu identitatea, laguntasuna, sexu joerak, bullyinga, sare sozialak... Esan dutenez, gai horiek hizpide dituzte gazteek. Galbetek azaldu duenez, lagun baten bidez genero aldaketarena gertutik bizi izan du. Ferrerok ere gertuan halako kasu bat izan du eta horrek film-laburra egiten "eta inspirazioa izateko asko lagundu" ziola aitortu du. Eneritz Moreno Gomezek azaldu duenez, izena aldatu eta hobe moldatzen zen beste batetik aldatu nahi zuen laguna dute. Gaineratu duenez,

haien lagun batzuei mutilak bakarrik gustatzen zaizkie, besteei neskek bakarrik eta batzuei biak. Ziurtatu dutenez, lagunartean sexualitatea hizketagaitako bat da.

Saria lortu duten guztiak neskek izan dira. Jakinarazi dutenez, mutil bakar batek aurkeztu zuen film laburra lehiaketara. Beraz, saritu guztiak neskek izatea "zortea" izan dela aipatu dute. Hala ere, gaineratu dute mutilak gai horietaz aritzera ez direla animatzen. "Barrezka hasten dira. Itxiagoak dira", azaldu dute.

Film laburrak egitea gustatzen zaiela azaldu dute. Ferrerok DBH 1etik gogoko du, sormen taillerrean izena eman zuenetik, "arreta piztu zidan". Ikasketa prozesuan egin behar izaten dituzte ikus-entzunezko lanak. Eta jakintza hori ere erabilgarria izan zaie lanak ontzerako garaian. Galbeterendako "polita" izan da "filma egiteko bestean azalean jartzea eta besteek zer sentitzen duten ikustea". Lagunartean, "barre egiteko", egin duten bideoren bat "ongi gelditu" zela azaldu du Galbetek. Halako film labor gehiago egiteko nahia dute.

## IKUSI ONDOREN SEXUALITATEARI BURUZKO ELKARRIZKETARIK EZ DA SORTU

### "Nahasita egotetik ideiak garbi izatera"

OLAIA FERRERO MARIN  
BANAKAKO SARIA

**Hiru zati ditu film laburrak. Aurrenekoan soinuari aparteko garrantzia eman diozu. Zer adierazi nahi zenuen?**

Polita iruditu zitzaidan hasieran eszena pixka bat bisuala izatea, ez dakigulako zer espero behar dugun. Hasieran soinuekin jolastu nuen, istorioan sartzeko. Eta trama emateko.

**Bigarrenean narratzaileak sexu identitatearen**



**inguruko kezka azaltzen du. Zergatik gai hori?**

Kasu gertu bat izan nuen. Lagun hartan pentsatu nuen eta film labor honetan horri buruz hitz egitea ideia on bat iruditu zitzaidan. Bigarren zatian zer ikusi dugun eta zertaz hitz egin behar nuen azaltzen da.

**Bukatzeo baiezta penpena.** Klimaxa eta mezu indartsua, film laborra modu on batean ixteko.

### "Pijoak bullying egiten zion besteari"

EKHIÑE, NAGORE, ENERITZ  
TALDEKAKO SARIA

**Zergatik parte hartu duzue?**

Zerbait berria egin nahi genuen. Parte hartu genezakeela esan ziguten eta gauza berriak egiteko ideia ona zela iruditu zitzaigun.

**Zer kontatzen du lanak?** Neska pijo batek lagun bat du eta haren lagun batek biekin dantza egin nahi du. Bera lesbiana da. Baina neska pijoak ez du nahi, arraroa delako dio, baina lesbiana delako ez du onartzen.



Azkenean, lagunak egiten dira eta dena ongi bukatzen da.

**Laguntasuna agertzen da zuen lanean.**

Gatazka moduko bat aterata eta azkeneko partean lagun horrekin gauzak konpondu nahi genituen.

**Iritzi aldaketa sare sozialen bidez?**

Ikusten du egunerokotasunean ez dela arraroa horrela izatea eta, azkenean, onartzen du eta lagunak egiten dira.

### "Madrilen grabatu nuen"



NAHIA GALBETE  
MATA  
PUBLIKO SARIA

**Ikusleek saritu zaituzte!** Pozik, zoriontsu nago.

**Zer kontatzen du?**

Lagun bat ez da neska sentitzen, mutila baizik. Aldatu nahi zuen, baina besteek bullyinga egiten zioten eta Madrilerara, Chuecara, joan zen.

**Sexu identitatearen gaiak kezkatzen zaitu?**

Bai, jendeak ez duelako onartzen.



Zure botoarekin posible da  
**JAVI ALKATE**

---

*Aurrera!*



**GEROABAI**

LA NAVARRA DE TODOS/AS  
GUZTION NAFARROA

EMAN BOTOA



## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI

ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO

LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /

kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 19

## LAKUNTZA Antzerkia.

Lakuntzako Herri Eskolako ikasleen *Hau suertie dekaune!* antzezlanaren emanaldia.

19:00etan, kultur etxean.

## ALTSASU Hitzaldia.

*Faxismoaren aurrean antolakuntza komunista* Sakanako GKsren Faxismoari aurre egin, zergatik eta nola hitzaldia.

19:00etan, Gure Etxea eraikinean.

## ALTSASU Gazte agenda.

Gaubela.

21:00etatik 09:00etara,

Intxostiapunta gazte gunean.

## ALTSASU Pilota jaialdia.

Promozio Mailako Binakako eta Buruz Buruko finalerdiak: Alberdi – Ugartemendia / Zabala – Arbizu.

Agirre / Bakaikoa.

Egiguren V / Salaberria.

21:15ean, Burunda frontoian.

## ALTSASU Kontzertua.

Asier Ardaiz Trio taldearen emanaldia:

Asier Ardaiz tronpeta jolea, Imanol

Iribarren piano jolea eta Marcelo

Escrich kontrabaxu jolea.

22:30ean, Haritza tabernan.

## LARUNBATA 20

## IRURTZUN Kulturarteko zikloa

*Kulturen ARTEan elkartuz*: Adin guztietarako joskintza eta sendabelar tailerrak; gazteendako henna tatuaiak, Irantzu Gonzalez dantza eskolarekin dantza eta murala margotzeko tailerra. Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak eta Irurtzuno Udalak antolatutako Kulturarteko zikloaren barruan.

11:00etatik 14:00etara, plazan

(eguraldi txarrarekin

Barazkigunen).

## OLATZAGUTIA Maisuenea

gaztetxearen 28. urteurrena.

11:00 Haur jolasak, futbito pistan.

12:00 Txupinazoa.

12:15 Karro poteoa.

14:30 Babarrun bazkaria, gaztetxean.

17:30 Mozkor olinpiadak, futbito pistan.

19:00 Kalejira.

21:30 Zezensuskoa, futbito pistan.

22:00 Bokatada, gaztetxe parean.

23:30 Kontzertuak: Aingura, Sustrai berriak eta Hiruki taldeak, gaztetxean.

## LAKUNTZA Elai Alai eguna.

Lakuntzako dantza taldearen eguna.

12:00 Kalejira, herrian zehar.

16:30 Jolasak, plazan.

18:30 Dantza emanaldia, plazan.

19:30 Buruhandiak, plazan.

20:45 Zezensuskoa, plazan.

## ALTSASU Ekitaldia.

Altsasuko EHBilduren ekitaldi politikoa Laura Aznal Nafarroako presidentegaiarekin eta Ainize Ibartutxi Altsasuko alkategaiarekin eta hautetsiekin.

12:00etan, Zumalakarregi plazan

(eguraldi txarrarekin lortia kultur

gunean).

## ALTSASU Ekitaldia.

Altsasuko Geroa Bairen ekitaldi politikoa Uxue Barkos Geroa Baiko Nafarroako presidentegaiarekin, Unai

Hualde hautetsiarekin eta Javi Olo Altsasuko alkategaiarekin.

13:00etan, Foru plazan.

## IRURTZUN Iratxoko Eguna.

17:00 Irurtzuno trikitilarietako erronda, herritik.

18:30 Maialen Aristegi abeslariaren kontzertu akustikoa, jolasak eta *Fidel Show* emanaldia, Iratxo elkarte belardian.

## ALTSASU Igeriketa txapelketa.

Nafar Kirol Jokoen Igeriketa Haur

Mailako zazpigarren jardunaldia.

17:00etan, Zelandi kiroldegian.

## ETXARRI ARANATZ Boxeo eta Kick Boxing.

Boxeo eta Kick Boxing belada: Jon Larraza, Izan Ibiricu, Andrés Unzué, Jon Cárdenas, Idoate, Irati Aitzelai, Garazi Autor, Mario San Martín, Garat Flores, Daniel Aito, Sofía Remon eta Alejandro Cisneros, eta Joseba Diaz eta Olmo de Paz.

18:00etan, Euskalerriri frontoian.

## ZORION AGURRAK



**Egoitz**  
Zorionak futbolari!  
Maiatzaren 21ean 10 urte beteko dituzu. Ongi pasa! Muxu pila bat Oihan, aita eta amaren partez.



**Egoitz**  
Zorionak zuri, zorionak Egoitz...!! Musu handi bat Aguraingo eta Arbuzuko familiaren partez.







# ANIMA ZAITEZ!

SAKANA IGERIKETA TALDEA

TEL.: 644 92 50 22

sakanaigeriketataldea@hotmail.com

## 2023/24 IKASTURTEKO IZEN EMATEA

- TALDE ETA ORDUTEGI MALGUAK, HASTAPEN, HOBEKUNTZA ETA LEHIAKETA IKASTAROK (ADIN GUZTIAK)
- MAIATZAREN 30ETIK UZTAILAREN 30ERAKO IZEN-EMATEAK (BEHIN BETIKO ZERRENDAK ORDUTEGI-TALDEAK IRAILA)
- 2023/24 IKASTURTEA, IRAILAREN 18TIK EKAINAREN 30ERA

	JAIOTEGUNA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	ORDUAK	HASIERAKO KUOTA	ATABOKO BAZKIDEAREN HILEKO KUOTA	ATABOKO BAZKIDE EZ DIRENEN HILEKO KUOTA
BENJAMIN HASIERA	2012 +	16:30/17:30	17:00/18:00			16:30/17:30	3 ORDU	25,00 €	25,00 €	36,00 €
UMEAK	2010-2012	17:30/19:00		17:30/19:00		17:30/19:00	4,5 ORDU	25,00 €	35,00 €	46,00 €
HAURRAK / JUNIORRAK	2009-2006	19:00/21:00	18:00/20:00	19:00/21:00		19:00/21:00	8 ORDU	25,00 €	40,00 €	51,00 €
ABSOLUTOAK	RESTO						4 ORDU	25,00 €	35,00 €	46,00 €

10 URTETIK BEHERAKOENTZAT DA BENJAMIN TALDE HAU

IGERILARI BERRIAK TALDEKA BANATUKO DIRA, ADINAREN ETA IGERIKETA MAILAREN ARABERA

KLUBEKO IGERILARIAK TALDEKA BANATUKO DIRA, IGERIKETA MAILAREN ARABERA

KLUBAREN WHATSAPP EDO POSTA ELEKTRONIKOAREN BIDEZ IZENA EMATEA

<https://forms.gle/ricBi5F5PFASMynQ6>



**OLATZAGUTIA Antzerkia.**

Tarima Beltza antzerki taldearen *Sin Salida* antzezlanaren emanaldia.  
19:00etan, kultur etxean.

**DORRAO Kontzertua.**

Elkarrekin Abesbatzaren kontzertua, Nafarroako Abesbatzen Elkartearen *Bideak elkartuz* zikloaren barruan.  
19:30ean, elizan.

**LAKUNTZA Kontzertua.**

Lin Ton Taun talde mitikoaren kontzertua.  
21:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU Afari solidarioa.**

Sakana Harrera Haranaren Siriako lurrikarak kaltetutakoei laguntzeko afaria. Menua Abdul siriarrak eginen du eta bildutakoa Zaporeak GKEarendako izanen da.  
21:30etik aurrera, Zubeztia elkartearen.

**IGANDEA 21****ALTSASU Mendi irteera.**

Altsasuko Mendigoizaleak taldearen irteera: Orrio – Ezkaba – Orrio 7,9 km-tako ibilbide zirkularra.  
08:00etan, egoitzan.

**UNANU Omenaldia.**

Iñaki Ochoa de Olza heriotzaren hamabosgarren urteurrenean mendizaleen eta senideen omenaldia solidarioa, Iñaki Ochoa de Olza-SOS Himalaya fundazioak antolatuta.  
08:30 Beriainera igoera.

10:30 Iñakiren omenezko monolitora igoera

11:00 Bertako gastronomiako salmahaiak eta haurrendako eskalada horma, Azken Kolpe txapalaparta taldeak girota.

11:45 Bi zutabeak monolitoan elkartuko dira eta mendizaleen omenaldia eginen dute.

13:30 Ochoa de Olzaren senideen omenaldia eta Atarrabia Abesbatzaren emanaldia.

14:00 Oroigarrien banaketa eta zenbait zozketa.

14:30 Elkartasun bazkaria, frontoian.

16:30 El Desagüe taldearen kontzertu solidarioa.

**LAKUNTZA Bertako produktuen****ZINEMA****ALTSASU**

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

**20.000 especies de abejas** gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Ostirala 19 19:00  
Igandea 21 19:30

**Las ocho montañas** gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Osteguna 25 19:00  
Ostirala 26 19:00

azoka. Plazan.

10:00-14:30 Bertako produktuen azoka: gazta, txistorra, sagardoa, ezti, pastelak eta abar. Artisau azoka: zurezko jostailuak, ukenduak, bitxiak eta abar. Forjas Brunen erakustaldia.

12:00 Ganadu erakusketa.

**OLATZAGUTIA Dantza eta zirkua emanaldia.**

Olatziko Akelarre ludotekako dantza tailerreko dantzarien emanaldia eta Rojo Telón zirkua konpainiaren *Nudo* ikuskizunaren emanaldia.

18:00etan, Erburua kiroldegian.

**ETXARRI ARANATZ Kontzertua.**

Goxua'n Salsa taldearen kontzertua, musika plazan zikloaren barruan.

19:30ean, plazan.

**ASTELEHENA 22****ALTSASU Elkarretaratzea.**

Pentsio duinen alde.

12:00etan, Zumalakarregi plazan.

**ASTEARTEA 23****ALTSASU Entzunaldia.**

Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako piano entzunaldia.

18:00etan, lortia kultur gunean.

**OSTEGUNA 25****ALTSASU Entzunaldia.**

Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako koruen entzunaldia.

17:00etan, lortia kultur gunean.

**OSTIRALA 26****ALTSASU Erremonte jaialdia.**

Erremontari Herriz Herri txapelketaren jaialdia.

18:00etan, Burunda pilotalekuan.

**ARBIZU Argi Bidea elkartearen 55. urteurrena.**

18:30 Haurrendako jolasak eta txokolatada, plazan.

19:30 Bideo emanaldia eta argazki erakustaldia, plazan.

20:30 Pintxo potea.

**LAKUNTZA Bertso saioa.**


Lakuntzako bertso eskolako emanaldia: Larraitx Goikoetxea, Urritz Alegre, Josu Sanjurjo, Xabal Ilarregi, Olatz Bados eta Eneko Lazkoz, eta bertso eskolako ikasleak.

19:00etan, plazan.

**IRURTZUN Kontzertua.**

Irurtzuno Abesbatzaren kontzertua.

19:30ean, kultur etxean.



**IRURTZUN Irurtzuno pintura tailerreko Pinturaren bidez bizitza gozatzen erakusketa.**  
Ekainaren 11ra arte. Pikuxar eta Tahonan.

**ALTSASU Koldo Arnanz tailerra: 30 urtez artearen magiapean erakusketa.**

Ostiralean 17:00etatik 20:00etara, larunbatean ikuskizuna hasi baino urte bat lehenago eta igandean 18:30etik 19:30era. Maiatzaren 21era arte. Iortia kultur gunearen erakusketa aretoan.

**IRAGARKI SAILKATUAK****LANA/NEGOZIOA****ALOKAGAI**

**Altsasun Coworking bulego autonomo eta urruneko langileentzat:** Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatzeko bulego; Wifi, inprimagailua, berogailua, komuna eta officea ditugu. Aukera paregabe! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

**LAN ESKAINITZAK**

**Irurtzuno Pikuxar tabernan zerbitzari eta sukaldari lan poltsa:** Asteburuetan eta udan lan egiteko gehien bat. Esperientzia baloratzen da eta euskara ezinbestekoa da. Curriculumak jasotzen ditugu tabernan utziz edo [pikutaberna@gmail.com](mailto:pikutaberna@gmail.com) helbide elektronikora bidalita.

**Lakuntzako igerilekuetan lan egiteko:** Sorosleak, atezainak eta garbitzailea behar dira udako denboraldirako. Kontratazioak Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kudeatuko ditu, interesa baduzu Altsasuko enplegu-bulegoan inskribatu zaitez maiatzaren 29a baino lehen.

**Irurtzuno Udaleko idazkari lanpostua aldi bate-**

**rako betetzeko oposizio lehiaketa martxan:** Deialdian parte hartu ahal izateko eskabideak Irurtzuno etxean aurkeztu daitezke, astegunetan 09:00etatik 14:00etara, edo udalaren Egoitza Elektronikoa ([www.irurtzun.eus](http://www.irurtzun.eus)). Eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 26ko 23:59an bukatzen da.

**OPARITUTAKOAK**

**Hiru katakume:** hilabete bateko hiru katakume eke bila dabilta. Interesa izanez gero jarri nirekin harremanetan 648 787 344 (Car-men).

**LEHIAKETAK**

**Txantxari ludotekarako logotipo lehiaketa:** Lehen Hezkuntzako Altsasuko ikastetxeetako haurrei zuzenduta dago eta lehiaketa honen bidez Altsasuko Txantxari ludotekaren logotipoa aukeratu da. Lanak A4 formato bertikalean egin beharko dira, erabilitako materiala librea eta derrigorrez agertu beharreko testua TXANTXARI LUDOTEKA izango da. Lanak ludotekan aurkeztu behar dira maiatzaren 25a baino lehen eta lanarekin batera gutun-azal itxi batean izen-abizenak, adina, helbi-

dea, telefonoa, eskolatu dagoen ikastetxea eta ikasmaila adierazten duen informazioa aurkeztu behar da. Saria mazarretarako materiala eta 60 euro metalkoan. Informazio gehiago [ludoteka@altsasu.net](mailto:ludoteka@altsasu.net) - 948 467 471.

**ZirTok umore errimatuaren lehiaketa:** Bertsozale Elkarrekin antolatuta, TikTok sare sozialean euskarazko umore errimatu sustatu asmoz sortutako bideo motz lehiaketa, baita zirtoa (erantzun errimatu barregarria) eta zirtolariak ezagutarazteko asmoz ere. 13 urtetik gorako edozeinek har dezake parte, nahi adina bideo igota, betiere Zirtok kontua etiketatuta. Hiru sari egongo dira 500 euroko bat eta 250 euroko bi. Apirilaren 1etik maiatzaren 31ra bitarte egongo da parte hartzeko aukera TikTok sare sozialean. Informazio gehiago eta eredu ezberdinen bideoak [www.zirtok.eus](http://www.zirtok.eus) web orrian edo TikTokeko Zirtok kontuan.

**Irurtzuno jaietako XXXI. Herri kartel lehiaketa martxan:** 2023ko urtarrilaren 1etik Irurtzun erroldatuta dagoen pertsona guztiei zuzenduta. Proposamenak

maiatzaren 29ko 14:00ak baino lehen aurkeztu behar dira. Oinarriak eta informazio gehiago [www.irurtzun.eus](http://www.irurtzun.eus) web orrian edo udal-etxean.

**Altsasuko festetako kartel lehiaketa 2023:** Festetako programan azala (helduen modalitateko irabazlearena) eta kontrazala (haurren modalitateko irabazlearena) aukeratu dira. Lanak ekainaren 16ko 14:00ak baino lehen Iortia Kultur Gunean aurkeztu behar dira. Oinarriak eta informazio gehiago [www.altsasu.net](http://www.altsasu.net) eta Iortia Kultur Gunean.

**OHARRAK**

**Aralar aingeruari haurrak aurkeztea:** Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak Aralarko Aingeruari Haurren Aurkezpena antolatuta du. 18. edizioa uztailearen 23an izanen da. Aldez aurretik izena ematen dutenek elizkizunaren ondoren umeen izen-abizenak grafia ederrez idatzitako pergaminoa jasoko dute. Horretarako, santutegiko sakristian edo dendan eman behar da izena.

**Olatziko Udan Euskarazko izena emateko aparteko deialdia zabalik:** maiatza-

ren 26ra arte, [olazti@olazti.com](mailto:olazti@olazti.com) posta elektronikora idatziz edo udal-etxera gerturatu.

**Altsasuko musika eta dantza eskolan izena emateko epea zabalik:** Izena emateko bi modu egongo dira [www.altsasu.eus](http://www.altsasu.eus) web orrian bitartez edo eskolako idazkaritzan (asteleheneetik ostegunera 15:30etik 20:00etara eta ostiralean 10:00etatik 13:00etara). Informazio gehiago <https://altsasumusikadantza.eus> loturan, [musikaeskola@altsasu.net](mailto:musikaeskola@altsasu.net) helbidera idatziz edo 948 564 581 telefonora deituz.

**Herri Urratsekin elkartasun uholdean diru ekarpenak egiteko:** Herri Urratsera joatea ezinezkoa egin bazitzaizun eta sostengua erakusteko aukera hauek dituzte; [www.herrirrats.eus](http://www.herrirrats.eus) web orrian sartuta eta materiala erosi, Bizum bidez Dohaintzak egiteko atalera sartuz (herri urrats aurkitu eta dirua bidaliz) edo honako kontu korrante hauetan dirua sartuta: ES87 3035 0059 8205 9073 1197, ES98 2095 5045 8710 6117 7332.

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)  
[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

**Erviti** aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | [info@aluminioserviti.es](mailto:info@aluminioserviti.es)



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

ESKELA



## Jokin Garmendia Mujika

(Maiatzaren 16 an hil zen 67 urte zituela)

Zauden tokian zaudela  
Gozatu dakizun bezala  
Txikitatik jaso duguna  
Amodioa ta gertutasuna  
Zaila izango da ordea  
Zure falta hemen betetzea.

Bidai on aita!

**Etxekoak**



ESKELA



## Jokin Garmendia Mujika



Agur aitona, aitona agur  
Ohore eta bi muxu.

Gure artetik joan zara, baina gurekin  
jarraitzen duzu.

**Zure ilobak**  
(Xuban, Amaieur eta Markel)

ESKELA



## Jokin Garmendia Mujika



Ederra izan da zu maitatzea  
handia, utzi diguzun hutsune eta arrastoa,  
badakigu hor zaudela  
eta maite dugu zu bihotzean sentitzea

**Ainhoaren familia**

ESKELA



## Jokin Garmendia Mujika

Gure ondotik joan zara, baina gure  
bihotzetan izango zaitugu betiko

**1955eko zure kintoak**  
Olazti

ESKELA



## Hita Sagaseta Inda

Gure bizitzetara etorri zinen  
eta gure bihotzetan betirako gelditu zara.

Esker mila, maite zaitugu.

**Altsasuko familia**

OROIGARRIA



**Anttoni Aldasoro**  
**Milagros Artieda**  
**José Ramón Ansó**  
**Jorge Ijurco**  
**Iñaki Orce**  
**Encarna Jiménez**  
**Lourdes Guruceaga**  
**Fernando Goya**

Beti gogoan

**Etxarri Aranatz, 59ko kintoak**

### JAIOTZAK

- **Jare Herrero Martin**, maiatzaren 2an Altsasun
- **Ainhoa Montserrath Alfaro Ortiz**, maiatzaren 5ean Etxarri Aranatz
- **Xuban Perez de Obanos Altuna**, maiatzaren 7an Arruazun
- **Yunes El Houndali Rodriguez**, maiatzaren 10ean Etxarri Aranatz
- **Sofia Zegarra Bazoalto**, maiatzaren 11n Irurtzun
- **Xuhar Claver Garcia de Albizu**, maiatzaren 10ean Altsasun
- **Adur Jungitu Martin**, maiatzaren 11n Iturmendin
- **Nour Rherbi Rahmani**, maiatzaren 12an Altsasun

### HERIOTZAK

- **Francisca Agirrebengoa Gastaminza**, maiatzaren 16an Altsasun
- **Maria Angeles Trabanca Cano**, maiatzaren 16an Olaztin
- **Joaquin Maria Garmendia Mugika**, maiatzaren 17an Olaztin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.  
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



## Izarra, Nafarroako tanatorioa

Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK

**ALTSASU**  
Santa Cruz, 6

**ETXARRI-ARANATZ**  
Nagusia, 2

948 05 90 90 • [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**

[edo.eskelak@guaixe.eus](mailto:edo.eskelak@guaixe.eus)

# IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

## “Betidanik”

☎ 948 19 70 70  
📧 @Grupolrache  
📘 Grupolrache  
🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



60  
-  
%80  
-----  
12



## Guaixe Fundazioaren bazkidetzaren %80a itzuliko zaizu

Urtean 60 euro ordaindu eta 48 euro  
berreskuratuko dituzu errenta aitorpenean.

2022ko ziurtagiria eskatu:

[admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus) edo 948 564 275,

Foru plaza 23, 1. solairua. (Altsasu)



## FUTBOLA Preferenteari eustea dute jokoan Etxarrik eta Lagunek

Preferente mailako 22/23 denboraldia bukatzeko bi jardunaldi falta dira eta giroa bizi-bizi dago. Altsasu hamabigarren da sailkapenean (40) puntu, eta larunbatean Universidad de Navarraren kontra 1 eta 2 galdu eta gero, igandean Itaroa Uharteko B-ren kontra jokatuko du, 13:00etan, Aretan.

Etxarri Aranatzek 1 eta 3 irabazi zion Valle de Egües B-ri, eta sailkapenean hamaseigarren postura igo zen (29 puntu). Gelditzen diren bi jardunaldietan irabazten badu, salbazioa lor dezake. Igandean, 18:00etan, Doneztebe hartuko du San Donaton, ezinbestekoa den partidari.

Lagun Arteak sailkapeneko 18. eta azken postuan jarraitzen du (23 puntu). Igandean 2 eta 1 irabazi zion Itaroa Uharteko B-ri Zelai Berrin, itxura ona emanez. Igandean, 19:45ean, Lagunek Burladés B izango du aurkari Ripagainan. Salbazioa ia ezinezkoa da, baina bukaera arte dena emango dute lakuntzarrek.

## ATLETISMOA Estarriaga, Sobredo eta Beunza Iruñeko podiumean

Igandean euripean jokatu zen Iruñeko Maratoi Erdia. 5 kilometroko lasterketan Pedro Ruiz txapeldunak (16:05), 19 segundo atera zizkion Asier Estarriaga etxarriarrari (16:24). Ivan Sobredo altsasuarrak hirugarren sailkatu zen (16:55). Emakumezkoetan Sara Modregok irabazi zuen (17:40), Izaskun Beunza olaztiarrari 2 segundo aterata (17:42).

# Ezkurdiak ez dio Altuna magoari beldurrik

**PILOTA** Labritek Ezkurdiaren eta Altunaren arteko Buruz Buruko finalerdia hartuko du larunbatean. Katedrak Altuna jotzen du faborito, baina arbizuarrak sentsazio onak ditu. Ongi sentitzen dela nabarmendu du, partida gogorrerako prest

**Maidar Betelu Ganboa** ARBIZU / ALTSASU  
Labritek Joseba Ezkurdiaren eta Jokin Altunaren Buruz Buruko finalerdia hartuko du larunbatean. Sarrera guztiak aspaldi saldu ziren, eta final handien giro itzela espero da Iruñeko Bomboneran. Asko dago jokoan: ekainaren 4an Bilbon jokatuko den Buruz Buruko finaleko txar-teletako bat.

Bi pilotarietako ostegunean aukeratu zuten materiala. Ez zen kezarik egon. Altunak azaldu zuen Ezkurdiak hautatu zituen pilotak "asko" gustatu zitzaizkiola. Buruz Buruko hasi baino lehen Joseba Ezkurdiak lesionatuta egon zen, baina aurrelari arbizuarrak egoerari buelta eman dio eta "sentsazioz ongi" dagoela nabarmendu zuen. "Eskuak ongi ditut. Fisikoki ongi sentitzen naiz, inongo arazorik gabe, eta gustura".

Ezkurdiak ezin izan zuen Buruz Buruko nahi bezala hasi. "Hanka osatzeko entrenatu gabe egon behar izan zuen, 16 egun geldirik, eta lehiaketa erritmoa galdu nuen erabat". Baina poliki-poliki erritmoa hartzen joan zen, sentsazio onak berreskuratzen, eta Peio Etxeberriaren kontrako partidari ongi aritu zen.

Altuna arerio gogorra da. "Badakit %100 eman beharko dudu-



Atzo, osteguna, aukeratu zuten materiala Altunak eta Ezkurdiak. ASPE

la partida borrokatu nahi badut. Ez dago inolako aitzakiarik. Ongi ikusten dut nire burua. Partida luzatu eta gogortzen bada ere, ez daukat beldurrik".

Altuna pilotari aparta da, bere mago txisteratik pentsaezinezko jokaldiak ateratzen dituena. "Oso ongi ikusten dut, txispa bereziarekin. Elordiren kontrako partidari Altunak duen klasea ikusi zen; oso ongi irakurri zuelako partida bukaera". Elkarren kontra askotan jokatu izan dute. Lau eta Erdiko 2022ko finalean eta bestelakoetan Ezkurdiak gailendu

zitzaien Altunari, eta beste hainbatetan Altuna nagusitu da. "Sarritan xehetasunengatik ihes egin izan zaizkit beraren kontrako partidari". Katedrak Altuna jotzen du faborito, baina arbizuarrak aukerak dituela uste du. "Partida oso gogorra dut aurretik, baina ilusionatuta nago, itxaropenez, eta nirea egiten badut aukerak izango ditudala uste dut. Garbi daukat zer egin beharra dudari: ongi zentratuta jokatu, eta sakearekin asmatu, bigarren pilotakadarekin mina egiteko. Ea lortzen dudari".



Agirre eta Bakaikoa. INIGO ROYO

## Promozioko finalerdia, Altsasun

Gaur, ostirala, maiatzak 19, Promozioko Buruz Buruko bi finalerdia jokatuko dira Altsasuko Burunda pilotalekuan 21:15ean hasiko den jaialdian (ETB1). Jaialdia irekiko duen binakako partidari Aaron Arbizuk eta Victorrek Alberdi eta Ugartemendia izango dituzte aurkari.

Promozioko finalerdietan momentuko pilotari onenak lehiatuko dira maiatzaren 27an Labriten jokatuko den final handirako txartel bila. Joanes Bakaikoa etxarriarrak Asier Agirre iruindarra izango du aurkari, eta Iker Salaberria goizuetarrak Julen Egiguren azpeitiarra. Bakaikoa 2018an Buruz Buruko txapela irabazi zuen, eta aurtun bigarren lortu nahiko luke.

## Infernua Zegaman

**MENDI LASTERKETAK** Zaparrada bat bestearen atzetik, inoiz baino gogorragoa izan zen Zegama-Aizkorri mendiko maratoia. Sakandarren artean Beñat Katarain 35. sailkatu zen (4:16:56) eta Aritz Munarriz 123. (4:58:27). Zegoen panoramarekin 5 orduetik jaiste, handia izan zen. Tamalez, Jose Antonio Salgado beteranoak ezin izan zuen bere 20. Zegama-Aizkorri bukatu.



UTZITAKOA

## Sonia Alonso, txapeldunordea

**PILOTA** Esku huskako Nafarroako Foru Erkidegoko Txapelketen barruan, senior mailako pilota goxuako finala jokatu zen Vianan. Sonia Alonso altsasuarrak Irati Arozenarekin osatu zuen biko, Amaia Zarrabeitiaren eta June Urrutikoetxearen kontra jokatuzko. Bi bikoak pare pare hasi ziren, baina azkenean bigarrenak gailendu ziren, alde handiz (18 eta 9).



EMAKUME MASTER CUP





Altsasuarrak, trofeoarekin. FEDERAZIOA

## SASKIBALOA Narum CBASK-en denboraldi bikaina

Bigarren Maila Interautonomiko Lauko Finalean egindako lan bikainari esker, Narum CBASK-ek hirugarren despeditu du 2022/2023 denboraldia. Lauko Finaleko finalerdietan Logrobasquet gailendu zitzaion talde altsasuarrari (69 eta 61), baina 3. eta 4. postuak zehazteko finalean, Narum CBASK-ek 76eta 89 irabazi zion ENERparking Basket Narrantari, denboraldiari ginga jarritz.

## IGERIKETA NKJ-en Haur mailako Igeriketa Txapelketa Zelandin

Altsasuko Zelandi kiroldegia Nafarroako Kirol Jokoetako Haurren Mailako Igeriketa Txapelketako zazpigarren saioa hartuko du larunbatean, maiatzak 20, 17:00etan. 2007an eta 2008an jaiotako gaztetxoak 800 m estilo librean lehiatuko dira. Sakana Igeriketa Taldetik gogoratu dute 23/24 ikasturterako klubean izena ematea zabalik dagoela.

## Nafarroako txapelduna

### TXIRRINDULARITZA

Afizionatuen Iturmendiko Sari ikusgarria Laboral Kutxako Nicolas Alustizak irabazi zuen, esprintean. Bere taldekide Iker Mintegi altsasuarra bigarren izan zen, eta Nafarroako txapeldunaren maillot gorria jantzi zuen, poz handiz. Aimar Tadeo lakuntzarra (Finisher) laugarren izan zen, Nafarroako txapeldunordea.



Beste hitzordu garrantzitsuetan bezala, Xotak bere zaleen babesa gertu sentitu beharra du. ARTXIBOA, JESUS AGUIRRE

# Xotak Lehen Mailako salbazioa du jokoan

**ARETO FUTBOLA** Osasuna Magna Xotak Betis arerio zuzena hartuko du larunbatean, 18:30ean, Anaitasunan. Klub irurtzundarrak 25 urte bete ditu Lehen Mailan eta zaleei "inoiz baino gehiago" animatzea eskatu die

### Maider Betelu Ganboa IRURTZUN

Xotak 25 urte daramatza areto futboleko Lehen Mailan eta beste horrenbeste egon nahi du. Horretarako, baina, asteburuan jokoan dagoen ligako azken jardunaldian puntuatu beharko du. Talde irurtzundarrak Lehen mailako salbazioa du jokoan, eta kategoriari eustea, ez du besterik buruan.

### Guztia jokoan

Osasuna Magna Xota hamalau garren da sailkapenean (28 puntu), eta jaitsiera postuetatik 2 puntura dago. Larunbatean, 18:30ean, Imanol Arregiren taldeak sailkapenean hamahiruga-

rreren eta arerio zuzena den Real Betis Futsal taldea (28 puntu) hartuko du Anaitasunan. Lehen mailari eusteko borrokan bi taldeak irabaztera edo berdintzera behartuta daude eta emozio handiko partidaren atarian daude Xotako zaleak.

"Ligako azken jardunaldian guztia dugu jokoan. Partida erabakigarria ongi prestatu eta borrokatu, ez dago besterik" azaldu du Imanol Arregi entrenatzaileak. Taldeak izugarri botako du faltan Roberto Martil kapitaina, ebakuntzatik osatzen ari dena. Irurtzundarrak kantxatik jarraituko du partida, taldea animatuz.

Asier Llamas atezain irurtzundarrak adierazi duenez, "Palmarren kontra partida ona egin genuen, eta horrek motibatzen gaitu. Betisen kontra asko dugu jokoan, eta gogotsu gaude. Gure zaleen aurrean irabazten badugu, Lehen Mailan jarraituko dugu. Hori nahikoa da hasieratik entxfatuta ateratzeko".

### Zaleen babesa

Egoera erabakigarria da, kritikoa, eta inoiz baino gehiago zaleen babesa eskatu du klub irurtzundarrak. "Xota gara, eta Nafarroako kasta nolakoa den erakutsiko dugu" azaldu du klubak Sare Sozialetan. Jakina, zaleei Anaitasunara gerturatzeko deia egin diete, "gure zaleak ezinbestekoak direlako". Ea guztien artean Lehen Mailan beste 25 urtez jarraitzea lortzen duten.



Xotako neskak finalerdia sailkatu izana ospatzen. XOTA

## Xotak Kopako finalerdia du jokoan

Emakumezkoen Senior mailako Kopako finalerdia jokatu du Xotak, final laurdenetan Azkoieni 1 eta 4 irabazi eta gero (Youssra Chafia (3) eta Naia Lizarraga). Larunbatean, 12:00etan Lacturale Orvina A taldea izango du aurkari Xotak, finalerdi oso gogorrean.



MARTIN EARLY

## Muinoen podiumean

### TXIRRINDULARITZA

Aralar klubak lehengo antolatutako junior mailako Etxarri Aranatz eta Ergoienako Muinoak lasterketa ederra eta mugitua izan zen oso. Hugo Villarroyak (Iparralde) erasoa jo eta bakarrik iritsi zen helmugara (2:23:47). Quesos Albenizko Iker Agudelok Ergoienako txokoak oso ongi ezagutzen dituela erakutsi zuen eta hirugarren sartu zen.



MARTIN EARLY



# Eguraldi txarrak ez zuen La Peluso zapuztu

**TXIRRINDULARITZA** Eguraldi petralak asko atzera bota zituen, baina hala ere 687 txirrindularik hartu zuten parte Irurtzun Kirol Taldeak antolatutako martxa zikloturistan. Mikel Nievek eta 84ko Reynolds-eko txirrindulariek moztu zuten hasierako zinta

**Maidar Betelu Ganboa** IRURTZUN Euria mara-mara ari zuela abiatu zen Irurtzun Kirol Taldeak antolatutako La Peluso martxa zikloturista. 1.387 txirrindulari zeuden izena emanda, baina eguraldiagatik erdia animatu ziren proba osatzera, 687 txirrindulari ausart.

Antolakuntzak aurten erretiroa hartu duen Mikel Nieve omendu zuen. Bera izan zen zinta moztu zutenetako bat, 1984ko Reynolds taldeko txirrindulariekin batera. Beraiek izan ziren beste omen-duak. Guillermo Arenas, Angel Arroyo, Iñaki Gaston, Enrique Aja eta Pruden Indurain izan ziren zinta moztu eta Mikel Nievekin La Peluson parte hartzen, oraindik ere sasoi bikainean daudela erakutsiz. Miguel Indurainek ezin izan zuen egon, beste konpromiso bat zuelako.

Aurretik izena eman zutenetik bi herenek ibilbide luzearen alde egin bazuten ere (138 km, 2.700 m desnibel +), egunean bertan askok ibilbide motzaren hautua egin zuten (87 km, 1.550 m desnibel +). Ibilbide ia guztian euria izan zuten bidaide, eta txirrindulari gehienek "okerrena hanketako hotza" izan zela nabarmendu zuten.

Irurtzun Kirol Taldeko Santi Moreno txirrindularien ausardia nabarmendu zuen. "Guztia prest genuen, eguraldia izan ezik. Egoera hauetan irteera hartu duten 687 txirrindularien jarraera txalotzekoa da". Eguerdian Juan Carlos Unzue hurbildu zen, La Pelusok izena ematearen %10 eta hainbat dohaintza ANELA Fundazioari (Alboko Esklerosi Amiotrofikoko Nafarroako Elkartea) bideratu baizitzaizkion. 5.000 euroko txekea jaso zuen Unzuek, "oso eskertuta".

## Erlojupekoa, bertan behera

La Pelusok maiatzaren 21erako antolatutako taldekako erlojupekoa bertan behera utzi du.



Mikel Nieve eta Angel Arroyo hasierako zinta moztzen.



Txirrindularien jarraera "txalotzeko modukoa" izan zela nabarmendu zuten antolatzaileek.



Santi Moreno, Juan Carlos Unzue ANELA Fundazioaren aldeko txekea ematen. LAPELUSO

## "Argi nuen La Pelusora aterako nintzela"

ARKAITZ MUNARRIZ IGOA TXIRRINDULARIA

### Larunbatean ez zegoen giro Irurtzunen. Ez zenuen bizikleta bildu eta etxera joateko tentaziorik izan?

Ez. Aurreko astean La Palman egon nintzen oporretan, eta probaren bezperan iritsi nintzen Etxarrira. Bai hala bai La Peluso egin behar nuela argi nuen. Etxeko proba zikloturista da, eta etxeko martxak egiteko gogoia izaten dut beti. Ibilbide luzean nongoen izena emanda, baina eguraldiagatik motza egin nuen. Hori ere argi nuen.

### 687 txirrindulari atera zineten, zegoen eguraldia kontuan hartuta, kopuru oso handia. Euriak ez zuen tregoarik eskaini.

Ibilbide guztian barna bota zuen etengabe, eta tarteka zaparrada sendoak ziren. Ez dakit erotuta ote gauden, baina halako panoramarekin ia 700 pertsona ateratzea izugarria da. Meritu handikoa. Eguraldi kaxkarrari irribarrea. Ez dago besterik.

### Erorikoak izan ziren?

Goñi aldean animalia etaazienda asko ateratzen da errepidera, eta arrastoa uzten dute, ongarrria. Bideberri bustiarekin oso erraza da

bertan irrist egitea, eta gehienbat horri nion beldurra. Baina nire parean ez zen inolako arazorik egon.

### Zer moduz ibili zinen?

Euriarekin jaitsieretan beti jaisten duzu erritmoa, baina gero beti bezala topera joan ginen, ahal genuen guztia ematen. Halakoak gara, nahiko lehiakorak. 2 ordu eta 56 minutu ingurutan egin nuen ibilaldi motza, ongi, kontentua. Txirrinda asetu, gorputzari estualdia eman eta ahal den moduan disfrutatua genuen.



### "EKAINAREN 10EAN IRATI XTREME EGINGO DUT, GEHIEN GUSTATZEN ZAIDAN PROBA. NIRETAKO, BEREZIA DA"

### Nolakoa da La Peluso?

Ibilbide motza gogorra da. Goñiko bailaran eta Madotz aldean aldapak daude. Gero Lekunberri jaitsi, Ultzama aldean sartu... badu berea. Ibilbide motza egiteko bizikletan ibili beharra dago, gutxieneko prestakuntza. Eta ibilbide luzea ederra da. Leizta aldean sartzen da, Huitzi, Basakabi, Saldias, Beruete... hitz potologoak dira, beste maila bat. Ibilbide gisa oso polita da, dena berde-berdea. Leitzaldean sartzerakoan bidea itxi egiten da, estutu, eta Doneztebe aldera jaisterakoan itxitasun horretan dena da mendia, dena zuhaitzak... Ilusgarria da. Toki pribilegiatu batean bizi gara.

### Denboraldian barna proba asko egin dituzu?

Nahiko saltseroa naiz eta nahikotxo egin ditut. Aurten korrika oso gutxi nabil, aldiz, bizikletan bai. Aste Santuan Igaladan egon nintzen, Volcat BTT proban. Askok disfrutatua genuen eta asko sufritu genuen. Ondoren Monegros BTTan egon nintzen, Sariñenan (Huesca). Txirrindulari askok hartzen dute parte bertan, eta denetatik du, baita basamortua ere. Bero egin zuen. Eta ondoren La Peluson.

### Hemendik aurrera, zeintzuk dira helburuak?

Ekainaren 4an Transbizkaia txirrindularitza proba luzea eta gogorra dut, Durangon hasi eta Urkiola gainean despeditzen dena (179 km, 3.500 m +). Eta gero niri gehien gustatzen zaidan proba: Irati Xtreme. Ekainaren 10ean izango da, Otsagin (128 km, 3.600 m +), eta portu gogorak ditu, Larrun tartean. Ezin dut huts egin, niretako toki magikoa delako. Gogorra baino, ederra. Denboraldiko helburu nagusia da niretako, ez gogortasunarengatik, baizik eta proba berarengatik, tokiarengatik eta sortzen didanagatik. Abuztuaren 6an Andorrara joango naiz, La Purito Andorra (115 km, 4.800 m+) egitera, beste basakeria bat (kar, kar).



**Maidera Betelu Ganboa** ALTSASU

Nahia Imaz Perez altsasuarra Burunda taldean hasi zen txirrindulari. Ermitagaña Lacturalen kadete eta junior mailan ibili zen, eta aurtan, 2023an, Sopela Team taldearekin 23 urtez azpikoen maila mustu du.

**23 urtez azpiko maila mustu duzu eta Espainiako Vueltan eta Euskal Herriko Itzulia Womenen aritu zara. Tarte laburrean salto handia da.**

Sopela Team UCI kontinental mailakoa da. Beraz, bi egutegiak egiteko aukera dugu. Batetik, 23 urtez azpiko lasterketak ditugu, Espainiako Kopan lehiatzeko aukera, eta bestetik proba garrantzitsuagoetan aritzeko, UCI mailako Vueltan, Itzulian, eta halakoetan. Galdetzen didatenean 23 urtez azpikoen mailan nagoe la esaten dut. Nik ez dut nire burua profesionaltzat hartzen.

**Zergatik aukeratu zenuen Sopela Team taldea?**

Hasieratik konfiantza eman zidatelako eta taldea nola eramaten duten gustuko dudalako. Unibertsitateko lehenengo urtean nago eta hori errespetatzen dute. Azterketa batengatik ezin baduzu lasterketa batera joan, ez dute trabarik jartzen.

**Ikasketak aurretik jarri dituzu.**

Niretako lehenengo ikasketak dira; txirrindularitza bigarren maila batean dago. Gradu bikoitza ari naiz ikasten Donostiako Deustuko Unibertsitatean, Fisioterapia eta Jarduera Fisikoren eta Kirolaren Zientziak. Urte gogorra izaten ari da, batez ere azterketak direla eta, ikasteko denbora gutxi baitut. Baina ondo antolatzen naiz, eta aurrera eramaten ditut entrenamenduak eta probak, baita ikasketak ere. **Hasieratik egon zara UCI mailako lasterketak jokatzeko zerrندان, hala behetik gora egin duzu?**

Hasieran Espainiako Kopako lasterketekin hasi ginen, erritmoa hartzeko. Hasieratik argi genuen maiatzean UCI mailako lasterketak iritsiko zirela eta bertan lehiatu beharra genuela. Jakina, Vuelta edo Itzulia ez dira bestek bezalakoak, maila oso ezberdina da. Helburua ez zen marka konkretu batzuk egitea, esperientzia hartu eta ikastea baizik. Vueltan hasieran beldur pixka batekin hasi ginen, UCI mailako gure lehen lasterketa zelako. Baina azkenean munduko hoberenekin lehiatzera ohitzen zara.

**Zer sentitu zenuen munduko txirrindularirik onenekin lehiatzean?**

# "Vueltan eta Itzulian egindakoarekin gustura nago"

**NAHIA IMAZ PEREZ SOPELA TEAM TALDEKO TXIRRINDULARIA**

**TXIRRINDULARITZA** Nahia Imaz Perez altsasuarrak 23 urtez azpiko maila mustu du Sopela Team taldearekin. Vueltan eta Itzulian parte hartzeko aukera izan du



Nahia Imaz Perez Sopela Team taldeko maillot horiarekin, ahalegin batean. UTZITAKOA

Zure idoloak dira eta haiekin lehiatzea arraro egiten da. Tropelean zaudenean, esaterako, Annemiek van Vleuten ikusten duzunean, ilusioa sortzen dizu. **Vuelta eta Itzulia ezin izan zenituen bukatu. Nolakoa da balorazioa?** Vueltako bigarren eta hirugarren etapetan erorikoak izan nituen. Min nahikoa hartu nuen eta erretiratu egin behar izan nuen. Ongi errekeratu nintzen, eta taldearekin Itzulia lehiatuko nuela adostu genuen. Ostiraleko etapen sekulako euritea egin zuen. Oso gogorra izan zen, baina eguna salbatu genuen. Larunbatean eguzkia atera zen eta askoz hobeki egin nuen etapa. Igandean nekatuta nengoen, eta 70. kilometroan lasterketatik erretiratu gintuzten. Hala ere, balorazioa positiboa da, horraino iritsi ahal izatea behintzat. Egindakoarekin gustura nago.

**"NIRETAKO LEHENENGO IKASKETAK DIRA, ETA SOPELA TALDEAK HORI ERRESPETATZEN DU"**

**"HELBURU NAGUSIENA ESPAINIAKO ERLOJUPEKOA DA. PODIUMEAN SARTU, EDO GERTU EGOTEA"**

**Zeintzuk dira zure aurtengo helburu edo erronkak?**

Taldeak ez digu batere presiorik sartzen. Gure zuzendariaren nahia da guk gutxinaka erritmoa hartzea eta kategoriari egokitzea. Nire helburu nagusia Espainiako Erlojupeko Txapelketa da. Podiumean sartzea edo, behintzat, gertu egotea. Ekainaren 23tik 25era jokatuko dira Espainiako Txapelketak Madrilan. Nesketan ez dago Nafarroako Selektzioarekin joateko aukera, Sopela taldearekin joango naiz. Bestalde, maiatzaren 26an ez dakit oraindik ziur Nafarroako Erlojupeko Txapelketan parte hartuko dudala ala ez. Maiatzaren 28an Eibarko UCI mailako lasterketa batean parte hartuko dut. Eta beste proba batzuk ere etorriko dira.

**Txirrindularitza gora iritsi ahal izateko aukerak ikusten dituzu?**

Ez dut horretan asko pentsatzen, gehiago naiz egunez egun egin beharrekoa egitearen aldekoa. Iristen bada iritsiko da, eta ez bada iristen, orain arte egindakoak pozik egongo gara.

**UCI mailako proba garrantzitsuetan parte hartu duzun lehen sakandarra zara. Hori ardura bat da?**

Ez, nik ez dut ardurarekin hartzen. Joan zen urtean jubentzetan nengoen, eta aurtan 23 urtez azpian sekulako salto nabaritu dut. Iaz lesionatuta ibili nintzen, eta horregatik aurre denboraldia berandu hasi nuen eta hasieran erritmoa hartzea kostatu zitzaidan. Orain ondo ibiltzen hasi naiz, eta hemendik aurrera maila hobetzen joatea espero dut.

**Denboraldi hasiera gogorra izan zenuen, Estela Dominguez zuen taldekidea hil egin baitzen, Salamancan entrenatzen ari zela kamioi batek harrapatuta.**

Albiste oso triste eta hunkigarria izan zen taldearendako. Espainiako Selektzioan taldekide izan nuen zenbaitetan, horregatik aurretik ezagutzen nuen. Halako gertakariak, noski, ematen dute zer pentsatu. Baina aurrera egin beharra dago. Errepidean txirrindulariak errespetatu behar ditugu, eta baita gidariak ere. **Kadetea eta jubentzia zirela Espainiako Selektzioan aritu zinen. Orain kategoriatik berriro iritsi zaren, zurekin harremanetan jarri al dira?**

Aurtan oraindik ez dut kontakturik izan, baina horrek ez du esan nahi agian etorkizun batean egingo ez dutenik. Horretarako lanean jarraituko dugu; ea gauzak ondo ateratzen diren.





Dantzaleku Sakana Selekzioak eta Osasuna beterranoak elkarrekin atera zuten argazkia, partida hasi baino lehen.

# Josefina Arregi Klinikaren alde busti zen Sakana

**FUTBOLA / ATLETISMOA** Dantzaleku Sakana Selekzioak eta Osasuna beterranoak jokaturako futbol partida solidarioari II. Alzheimer Lasterketa herrikoiak hartu zion lekukoa. Euripean, oinez edo korrika egin zuten bidea. Bildutakoa Klinikako handitze lanetarako da

## ALTSASU

Asteburuan Josefina Arregi Klinikaren aldeko bi kirol ekitaldi hartu zituen Altsasuk. Larunbatean Osasunako beterranoen kontra (Andoni Goikoetxea, Pablo Orbaiz, Ricardo Lopez...) lehiatu zen Peio Vergarak gidaturako Dantzaleku Sakana Selekzioa. Partida solidarioa izan zen, baina lehiatua, banakako berdinke-tarekin despeditu zena.

Igandean euripean abiatu zen II. Alzheimer Herri Lasterketa Josefina Arregi Klinikatik. 300 pertsona zeuden izena emanda, eta korrika edo oinez, ez zuten etsi. Ekimenean bildutako 3.000 euroak klinika handitzeko lanetara bideratu dira.



**Babesa.** "Sakanak Josefina Arregi Klinika babesten du eta oso kontentu gaude" adierazi zuen Angel Gardachal kudeatzaileak.

## 231 mendizale ausart Altsasun

**MENDIA** Altsasuko Mendigoizaleak klubak antolatutako 14. Hiru Mendi Zerrak martxan eguerdira bitartean ateri eutsi zion eta mendizaleak gustura ibili ziren Urbasa-Andia, Altzania eta Aralar mendizerrak lotzen. 271 zeuden izena emanda eta 231 atera ziren. Ziordiko guneko haragi gisatua eta Urdaingo Auntzetxeko magrak gorraipatu zituzten. "Bikainak" omen.



## Mank-ek prest du udako campusen eta jardunen eskaintza

**KIROLDEGIA** Futbol eta triatloi campusetan, surf ikastaroan eta uretako jardunaldietan izena ematea zabalik dago

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak udako eskaintzaren berri eman du. Ohikoa denez, futbol eta triatloi campusak izanen dira uztailean, ekainean surf ikastaroa antolatu da, Zarautzen, eta uztailean waterpolo eta kaiak eta kaiak polo jardunaldiak eskainiko dira. Antolatutako guztietan izena ematea zabalik dago Kirol Zerbitzuan (948 464 866, [kirolak@sakana-mank.eus](mailto:kirolak@sakana-mank.eus)).

### Surfa, ekainean

Ekainaren 17an eta 18an eskainiko da surf familiar ikastaroa. Egutero ia bi orduz ariko dira izena ematen dutenak, itsas mareen arabera azken astean zehaztuko den ordutegian. Hastapeneko ikastaroa Zarauzko Moor Surf Eskolak eskainiko du. 18 urtetik gorakoendako da, eta euren nerabeen ardura hartzen duten familiendako. Prezioa: 40 euro. Autobusa Ziorditik aterako da partaideak jasotzeko. Izena ematea zabalik dago ekainaren 9ra arte.

### Futbol campusa, Uharten

Mank-en aurtengo futbol campusa Uharteko Arakilgo futbol zelaian izango da. Uztailearen 3tik 7ra bitartean 2011n, 1012an, eta 2013an jaiotako neska-mutilen txanda izango da, eta uztailearen 10etik 14ra bitartean 2008an, 2009an eta 2010ean jaiotakoena. Gaztetxoak goizeko 10:00etatik 13:00etara trebatu dira futboleant, Maalen Beraza Etxarri eta Aitor

Lara Zia monitoreekin. Inguruan irteerak egingo dira. Prezioa: 35 euro. Izena ematea zabalik dago ekainaren 23ra arte edo tokiak bete arte (txanda bakoitzeko gehienez 30 partaide).

### Triatloi campusa, Altsasun

Uztailearen 17tik 28ra bitartean eskainiko da, astelehenean ostiralera, Zelandin eta Dantzalekun, Altsasun. Maalen Beraza Etxarri eta Ekhi Congil Mendio-la izango dira monitoreak, eta 10:00etatik 12:30era lan egingo dute izena ematen duten 8 eta 16 urte bitarteko gaztetxoekin. Atletismoa, igeriketa eta txirrindularitza arteko trantsizioak nola landu azalduko dute monitoreek, kirol bakoitzean sakontzen duten bitartean. Prezioa: 40 euro. Izena ematea zabalik dago ekainaren 23ra arte edo tokiak bete arte. Uztailearen 22an jokaturako da Mank-ek Urdaingo igerilekuan antolatutako duen Sakana-kon XVII. Haur Triatloia.

Bi campusak, futbolekoa eta triatloikoa, euskaraz izango dira, eta norbaitek ez badu ulertzen gaztelaniaz egingo zaio. Bestalde, partaide bakoitzak bere bidaia antolatutako ditu.

### Waterpolo, boleia eta kaiak

Uztailearen 20an waterpolo eta uretako boleia jarduerak egongo dira Etxarri Aranatzan eta uztailearen 27an kaiak jardunaldia Irurtzumen. Dohainik dira, baina izena eman beharra dago uztailearen 18ra arte.





Ekainaren 18an izanen da Abesbatza Txikiaren kontzertua, Etxarrin. UTZITAKOIA

## Udaberriarekin batera, artea Etxarri Aranazko plazara

Etxarri Aranazko musika zikloaren barruan Goxua'n Salsa taldearen kontzertua izanen da igandean

### ETXARRI ARANATZ

Aurreko igandean, maiatzaren 14an, hasi zen Etxarri Aranatzaren udaberriko igandeak musikaz girotzen dituen zikloa, Alarma Morea taldearen kontzertuarekin. Kontrasteen zikloa izan ohi da Musika plazan, eta aurten ere hala izanen da: maiatzaren 21ean, igandea, 19:30ean, euskarazko salsa izanen da Etxarri Aranazko plazan, Goxua'n Salsa taldearekin.

Goxua'n Salsa taldea 2020an sortu zen eta New Yorkeko, Kolonbiako eta Puerto Ricoko 1960ko, 1970ko eta 1980ko hamarkadetakoko salsako klasikoak bertsiionatzen dituzte, eta letrak euskaraz egiten dituzte.

Ekainaren 4an, igandea, *Euskal Jaiak 100 urte* ekimena ospatuko dute Etxarri Aranatzaren eta Jose Luis Erdozia omenduko dute. Ospakizunean, besteak beste, Etxarriko Abesbatza,

bertsoak eta olerkiak izanen dira, baita musika plazaren hurrengo emanaldia ere, 19:30ean, plazan: Demode Quarter a capella taldea.

Egun honetan ere Dantzari Txiki Eguna ospatuko dute Etxarri Aranatzaren, eta dantzariak herriatik kalejira eta emanaldiak egiten dituzte.

Etxarri Aranazko Musika Eskolako ikasleen ikasturteko amaierako kontzertuak itxiko du aurtengo Musika plazan zikloa. Ekainaren 11n, igandea, 12:00etan izanen da, plazan.

Musika eskolako emanaldiak 12:00etatik 14:00etara plazan egiten duten Artista etxarriarrak plazan herriko artisten lanen erakusketa girotuko du.

Ekainaren 18an, igandea, 18:00etan, Etxarri Aranazko Abesbatza Txikiaren ikasturte amaierako kontzertua izanen da, ermitan.

# Antzerkia, dantzarien eguna eta talde mitikoa

Gaur, maiatzak 19, ostirala, Lakuntzako Herri Eskolaren 'Hau suertie dekaune!' antzezlanaren emanaldia izanen da, herriko kultur etxean. Bihar, maiatzak 20, larunbata, Elai Alai eguna eta Lin Ton Taun taldearen kontzertua izanen dira.

### LAKUNTZA

Igandean, maiatzaren 21ean, Bertako Produktuen Azoka izanen da Lakuntzako kultur etxean, goizean hasi eta eguerdira arte. Plazan ere artisau produktuen azoka, Forjas Brunen erakustaldia eta ganadu erakusketa izanen dira. Baina ez da Lakuntzan as-teburuan egonen den ekimen bakarra: ostiralean eta larunbatean antzerkia, dantza eta musika izanen dira.

Gaur, maiatzak 19, ostirala, Lakuntzako Herri Eskolako ikasleek sortutako *Hau suertie dekaune!* antzezlanaren emanaldiak izanen dira. Bi saio egiten dituzte, lehenengoa 11:30ean, Lakuntzako eta Arbizuko ikasleendako, eta bigarrena, 19:00etan, publiko orokorrarendako. Antzezlanaren antzerki eskolan sortu dute, irakasle, ikasle eta gurasoen laguntzarekin. 3. mailatik gorako ikasle guztiek parte hartzen dute, 50 ikasle inguruk. Bakoitzak paper txikia betetzen du, bizpahiru esaldi, denak Lakuntzako hizkeran. Helburua herriko hizkera bizirik mantendu eta ikasleendako arrotza ez izatea da. Maiatzaren 20an, larunbatean, Elai Alai dantza taldeko eguna ospatuko dute Lakuntzan, eta dantzariak kalera aterako dira. 12:00etan herriatik kalejira egiten



2022ko Elai Alai eguneko kalejira. ARTXIBOA

dute, eta bazkaldu ondoren, 16:30ak aldera, jolasak. 18:30ean dantza taldearen emanaldia eta dantza plazan izanen da, eta 19:30ean buruhandiak aterako dira. Elai Alai egunaren ospakizunak 20:45ean amaituko dira, zezensuzkoarekin.

Egun berean, 21:00etan, Lin Ton Taun taldearen kontzertua izanen da Lakuntzako kultur etxean. Lin Ton Taun 1990ko hamarkadako talde ospetsueneraiko bat da eta urteetako ete-naldiaren ondoren, agertokiatera itzuli da. *Danbolin.eus* ager-

karian 2022ko amaieran egindako elkarrizketa batean taldeak azaldu zuzenez, Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako Uda-goieneko Ostera jaialdian jotzeko proposamena egin zieten eta "interesgarria" iruditu zitzairen. Sei urte zeramatzen jo gabe eta egitasmo horretarako oholtzara itzultzerantz animatu ziren. Entseatzen hasi eta emanaldi gehiago sortu zitzaizkien. Itzulerako kontzertu haietan "oso gustura" aritu ziren: "Berrirontseguetara itzultzea guretzat elkartzeko modu bat da".

## Kategoriako hoberena

Igone Augusto Fernandez dantzari altsasuarrak bi domina irabazi zituen Tarragonako Palau Firal i de Congressosen jokaturako Orbe Katalunia Dantza Txapelketan: dantzari errebelazioa eta Orbe Lehenengo saria, bere kategoriako gorenena. Augustok kategoria jazz eta garaikide absolutuan parte hartu zuen. Aurreko urtean ere bi sari irabazi zituen: errebelazioarena eta urrezko domina.





BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO MARIN

## Gianni Versace

Gianni Versace Regio de Calabrian jaio zen 1946an. Bere ama jostuna zenez, txikitatik murgildu zen moda munduan. 20 urterekin bere arreba Donatellarentzat arropa diseinatzen zuen. Arkitektura ikasi ondoren Milanera joan zen moda munduan lan egitera. Hainbat enpresetan lan egin ondoren, 1976an bere zigilua sortu zuen. 1978an, bere lehen denda ireki zuen Milanen, "Via Della Spiga".

1981ean bere lehen lurrina komertzializatu zuen eta 1982an lehen aldiz "Golden Eye Award" saria irabazi zuen, udazken-negu bildumarengatik. Hurrengo urteetan Gio Versace eta famatuen arteko idilioa hasi zen. Esate baterako, Paul McCartney eta Michael Jackson bideo musikal batean bere arroparekin jantzita agertu ziren. Bruce Springsteenek Versace aukeratu zuen bere "Born in the USA" birarendako, eta Sean Pennen, Madonnarekin ezkontzean, etxe italiarra aukeratu zuen baita ere.

80. hamarkadaren amaieran arrakasta handia lortu zuen,

Estatu Batuetan batez ere. Hori dela eta beste linea bat zabaltzea erabaki zuen, goi mailako jostuntza lerroa hain zuzen ere, mundu elitistan sartzeko asmoz. 1989an sortutako Versus Versace izenekoa, gazteago eta rockeroagoa zen, eta Donatella arduratu zen linea horretaz.

Versaceren sorkuntzek post-pop kultura ulertzeko modu berezia dute, non diseinu sexy eta ausartak uztartzen dituzten.

Versace artearen maitale handia izan zen, bereziki materialekin esperimentatzea eta antzinako historia zituen gustuko. Hori dela eta, Errenazimentuko ikerketa batekin alderatu zuen bere tailerra. Almodovarren eta Paul Poireten fan ezaguna, Jane Fonda, Cindy Crawford, Cher, Elton John eta Stingen lagun handia, besteak beste. 90. hamarkadaren hasieran supermodeloen fenomenoen arduraduna eta alfonbra gorriaren aitzindaria izan zela esaten da.

1997an, Andrew Cunananek hil zuen Gianni, Miami bere etxeko sarreran tiro eginez, 50 urte zituela. Bere arreba Donatellak, ordura arte konpainiako presidenteorde izandakoak, Versaceren agintea hartu zuen inperioari forma ematen jarraitzeko.



## Kulturenarteko literatura

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuaren Kulturenarteko zikloaren barruan eta Pikuxar eta Aizpearen laguntzarekin, maiatzaren 11n 'Miñan' liburuaren inguruko solasaldia izan zen Amets Arzallus idazlearekin. Liburuan idazleak Ibrahim Balderen historia idatzi du. Txosten bat izan behar zena, liburu bihurtu zen.

# Nota hoberenak, publikoaren txaloak

Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako ikasleen ikasturte amaierako entzunaldiak, kontzertuak eta emanaldiak izanen dira egunotan; maiatzaren 23an piano entzunaldia izanen da, eta 25ean koruena. Ekainean dantza emanaldiak izanen dira

ALTSASU

Musika ikasgeletatik kalera edo eszenatokietara ateratzea Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako helburu pedagogietako bat da, Jokin Borromeo eskolako zuzendariak azaldu zuzenez. Musikariak eta dantzariak egiten dutena erakutsi behar dute, eta hasieran "gogorra" den arren, ohitzen joaten direla gaineratu zuen.

Egunotan ikasturte amaierako emanaldiak izanen dira, eta ikasturte osoan zehar ikasi dutena eszenatokian erakutsiko dute musikariek. Maiatzaren 23an, asteartea, 18:00etan, piano entzunaldia izanen da, Iortia kultur gunean eta maiatzaren 25ean, osteguna, 17:00etan, koruen kontzertua izanen da, areto berdinean. Bi emanaldiatarako sarrerak doakoak dira, baina aurretik gonbidapena hartu behar da kultur gunearen webgunean eta txarteldegian.

Dantza

Musikarekin batera, Altsasuko Musika eta Dantza Eskolak euskal dantza ikasketak eskaintzen ditu ere eta aurreko ikasle gazte eta helduek ikasturte osoan zehar prestatutako ikuskizun berri-tzailea emanen dute: *Ekialdeko haizeak*. Dantza emanaldia ekainaren 2an, ostirala, 19:30ean,



Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako gazte eta heldu dantza taldea. IORTIA

Iortia kultur gunean izanen da, eta euskal dantza eta dantza garaikideko urratsetan oinarrituz Korrontzi, Kherau, Miel Otxin, 20 Hatz Proiekt, Alboka, Adarrots, Xabi Aburruzaga, Keltiar Aldea, Zopilotes, Oreka TX, Juan Mari Beltran, Kalakan, Ken 7 eta Thierry Biscary kanteekin lagundurik sortutako koreografiak interpretatuko dituzte.

Ekainaren 9an, ostirala, 19:30ean, 5 eta 13 urte bitarteko dantza ikasleek *Euskal Herriari Bira* ikuskizuna izanen da, Iortia kultur gunean. Urte osoan zehar ikasitakoa

erakutsiko dute oholtzaren gainean. Ikuskizuna bi ataletan banatuta egonen da: lehenengoan, Euskal Herriko hainbat euskal dantza tradizional inrerpreatuko dituzte eta, bigarrean, euskal urratsetan oinarrituta Fran Idarreta, Alboka, Ronan Hardiman, Huntza, Antonio Pauner, Txala eta Gozategi taldeetako kantetan oinarritutako koreografia berri-tzaileak egiten dituzte dantzariak. Bi dantza ikuskizunetarako sarrerak euro batean eskura daitezke Iortia kultur gunearen webgunean eta txarteldegian.

## Antzerkia, dantza eta zirkua asteburuan, Olatzagutian

Maiatzaren 20an Tarima Beltza izanen da, eta 21ean herriko dantzarien emanaldia eta 'Nudo' ikuskizuna

OLAZTI

Tarima Beltza antzerki konpainiaren *Sin Salida* Olatzagutiko kultur etxean izanen da maiatzaren 20an, larunbata, 19:30ean. Altsasuko antzerki taldearen lan berria komedia bat da eta elkar

ezagutzen ez dute sei pertsonen istorioak kontatzen du. Sarrerak Olaztiko Udaleko webgunean edo kultur etxean eros daitezke bost eurotan.

Maiatzaren 21ean, igandean, 18:00etan, dantza emanaldi be-

rezia izanen da Olatzagutiko Erburua kiroldegian. Duela zenbait urte Akelarre ludotekan dantza tailerra jarri zuten mar-txan. Igandean tailerrean parte hartzen duten hainbat dantzariaren emanaldia izanen da. Ondoren, Rojo Telón zirkukonpainiaren *Nudo* zirkukuskizuna izanen da. Kantxako sarrerak dagoeneko agortu dira, baina harmailletakoak oraindik eros daitezke, aurretik hiru eurotan eta egunean bertan 3,5 eurotan.



# Bertso eskolatik, plazara

Sakanako bertso eskola batek antolatzen duen lehenengo jaialdia izanen da maiatzaren 26an, ostirala, Lakuntzan. Helburu nagusia ibarrean bertso saioak antolatzea da, baina ez bakarria; haurrak "ilusioarekin" ari dira emanaldia prestatzen

**Erkuden Ruiz Barroso** LAKUNTZA  
Lakuntzako bertso eskolaren emanaldia izanen da maiatzaren 26an, ostirala, 19:00etan, herriko plazan. Saioan bertso eskolako zazpi ikasleek agurra kantatuko dute, eta Larraitz Goikoetxea, Olatz Baldos eta Urritz Alegre bertso ikasleak eta Josu Sanjurjo, Xaba Ilarregi eta Eneko Lazkoz bertsolariak izanen dira oholtzaren gainean. Sakanan haurren bertso eskola batek bertso jaialdi bat antolatzen duen lehenengo aldia dela esan du Saats Karasatorre bertso eskolako irakasleak.

Lakuntzako bertso eskola 2018. urtearen hasieran sortu zen lehenengo aldiz, baina 2021eko ikasturte amaieran taldea desegin zela azaldu du Karasatorrek. Aurten berriz sortu da, talde berriarekin. "Etxetik dakartena da euren bertso ezagutza. Hezkuntza arautuan ikastaroa burutu ondoren, ikasleei proposamena luzatu zitzaie eta eurek heldu". Ikastaroa jaso ez zuten ikasleak ere animatu ziren, Lehen Hezkuntzako 4. mailakoak. Arbizutik ikasle bat joaten da ere, Arbizun ez baitago bertso eskolarik.

"Egun zazpi ikasle aritzen dira". Zazpiek aurten izan dute bertsolaritza lantzeko lehen aukera. "Doinuak ikasten eta neurriekin probatzen ari dira". Karasatorrek ikasteko "gogotsu" ikusten ditu bertsoan hasiberriak, eta "poztekoa" da euskararekiko eta bertsoarekiko erakusten duten jakinmina: "Esanguratsua da jolasa pantailen erabilerarekin eta erdal hizkuntzekin lotzen duen ume batentzat nola izan daitekeen interesgarria baliabide materialik behar ez duen euskarazko jolas bat".

Sakanan egiten den haurren bertso eskola batek ikasturte amaierako antolatzen den lehe-



Lakuntzako bertso eskolako zazpi bertsolari gazteak. UTZITAKOIA

**IKASLEAK BERTSO SAIOAREKIN POZIK ETA URDURI DAUDE, "SERIO HARTU DUTE LANA"**

**"BERTSOTAN IKASTEKO BALIABIDE NAGUSIA JOLASA DA; BERTSOA HITZAREN JOLASA DA"**

nengo bertso jaialdia dela uste du Karasatorrek: "Nafarroako beste bertso eskola batzuetan egin izan da kurtsu bukaerako festarik edo. Hala ere, merienda edo saio intimoagoak izan dira: gurasoak, ikasleak...".

Bertso eskolaren emanaldi bat antolatzearen zergatiak, Karasatorrek bi adar nagusi zehaztu ditu: "Batetik, esanen nuke Sakanan bertso saioak antolatzeko ohitura handirik ez dagoela; beste leku batzuekin alderatuta ez, bederen. Are gehiago, behe-

ranzko joera daukan ohitura dela esanen nuke. Sentsazioetatik hizketan eta datu zehatzik eman gabe". Horretan eragiteko modu "interesgarria" Sakanako bertso eskolek saioak antolatzeko dela gaineratu du Karasatorrek, kasu honetan, Lakuntzakoak. "Udal ezberdinei elkarlanean aritzeko proposamena luzatu genien bertso eskola desberdinetatik, baina hauteskunde garaian eta presaka aritu gara. Ea datorren urterako gauzak hobeto egiteko aukera daukagun".

Bertso ikasleen saioak antolatzearen bigarren arrazoiak haurren ilusioa da: "Ilusio handia sortu duen proiektua izan dela esanen nuke. Astero galdetzen zidaten ea bertsolariak zer erantzun zuten, ea lekua zehaztua zegoen...". Pozik eta urduri daude ikasleak agurra prestatzen, gaiak proposatzen eta abar. "Serio hartu dute lana eta ikasketa garrantzitsuak ekarriko dizkiela uste dut. Bertsoari begira ere, saioak antolatzeko gai diren norbanakoak hezteko positiboztat ulertu behar da". Hortaz, bertso saioaren antolakuntza haiek erabakiko dute kantuan, gai jartzen edo afaria prestatzen ibili behar duten, bertsolariak azaldu bezala.

Lakuntzako bertso eskolako zazpi ikasleek agurra abestuko dute eta, horretaz gain, Altsasuko bertso eskolako Larraitz Goikoetxea, Olatz Baldos eta Urritz Alegre oholtzan kantuan izanen dira ere. "Bertso eskolan ibilbide

luze xamarrekoak dira hirurak, bat-batean ari direnak. Pozgarria da haiei ere plazak eskaini ahal izatea". Haien adinean "eskolartekotik eskolartekora" ibiltzen direla azaldu du Karasatorrek, "eta horrela zaila da bertsoarako eskertzeak diren zenbait gaitasun fintzea". Bertsoan ari denak jendeaurrera atera nahi badu bertso eskolan aritzea baino gehiago behar duela esan du. "Nahi ez duenik ere badago, noski, bertso eskolan gustura arituta ere, bere bertso jarduna horretara mugatu nahi duenik".

## Aurretik

"Bertso eskoletako asteroko saioetan forma hartzen joan gara; gertuko bertsolariak gonbidapena luzatu diegu, gaiak prestatu ditugu, agurra ondu, doinu desberdinak ikasi eta agurrean erabiliko dutena aukeratu...". Bertso eskoletan bertsoan ikasteko baliabide nagusia jolasa da: "Oinarritzko ezagutzak bereganatzen dituzte, doinuak ikasten dituzte, euren ahotsa probatzen dute eta abar". Bertsoa hitzaren jolasa da: "Komunikazio gaitasunak zeresan handi du bertsoan, eta alderantziz". Haurrek hitzerako interesa propio dutela azaldu du bertsolariak, "erri-matzeako gaitasuna eta irudimena", eta bertso eskolak horretan sakontzen eta besteekin elkarbanatzeko aukera eskaintzen die.

## Karasatorre aurrekanporaketan

Urriaren 7an abiatuko da 2023ko Nafarroako Bertsolari Txapelketa, abenduaren 2ra arte luzatuko dena, eta aurretik bi aurrekanporaketa saio jokatu dira, txapelketan parte hartuko duten bertsolarien zerrenda osatzeko: maiatzaren 26an, Larraunen, eta ekainaren 2an, Etxaurin, jokatu dira bi saio horiek eta hamabi bertsolariak parte hartuko dute, tartean Saats Karasatorre.

Txapelketaren araudiaren arabera, azken ekitaldian parte hartu zuten bertsolariak bakarrik dute berritasun txapelketarako txartela, Sekula parte hartu ez dutenek, edota 2021eko baina lehenagoko edizioaren batean parte hartutakoek, aurrekanporaketa fasea jokatu beharko dute sailkatzeko, Karasatorre kasu. Hamazazpi bertsolari dira dagoeneko urrian hasiko den txapelketarako sailkatuta daudenak, eta hamabi aurrekanporaketak jokatu dituztenak; horietatik zazpik lortuko dute sailkapen txartela. Beraz, 24 bertsolariaren abiatuko da txapelketa. Aimar Sagastibeltza, Amaia Telletxea, Cesar Etxeberria eta Joseba Beltza etxarriarra ariko dira epaile lanetan aurrekanporaketetan.

Karasatorrek ekainaren 2an, ostirala, 18:30ean, Etxauriko udaletxeko aretoko aurrekanporaketan kantatuko du.



Irantzu Gonzalez Azpiroz dantzaria eta dantza irakasleak Musikaz blai euskal abestien zerrenda osatu du.

# "Euskal abestien abanikoa zabaldu da"

Irantzu Gonzalez Azpiroz dantzari eta dantza irakasleak Elaide Nafarroako toki entitateetako euskara zerbitzuen Musikaz blai egitasmoaren barruan, bere euskal abestien zerrenda osatu du. Maiatzaren 30ean publikatuko da

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

**1** Nola jaso zenuen Musikaz blai egitasmoan parte hartzeko gonbidapena?

Momentu horretan Londresen nengoen, Royal Opera Housen The Royal Balleten trebakuntza batean. Izaskun Errazkin Bel-

tza Sakanako Mankomunitateko Euskara zerbitzuko teknikariak deitu ninduen eta tartetxo txiki batez hitz egiten

## ZURE PROIEKTUA GARATZEKO LAGUNTZARIK BEHAR AL DUZU?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



**gk**  
DISEÑUA ETA KOMUNIKAZIOA

f

619 821 436  
info@gkomunikazioa.eus  
www.gkomunikazioa.eus  
Foru plaza, 23-1. Altsasu



egon ginen, klaseen arteko atsedendian nengoelako. Proposamena luzatu zidan eta informazio guztia eposta bidez bidali zidan.

**2** Aurretik proiektua ezagutzen zenuen?

Aurretik zerbait entzuna nuen, banekien zerbait egiten ari zirela, baina ez nuen oso presente.

**3** Eta zer iruditzen zaizu ideia?

Oso ongi iruditzen zait, proiektu interesagarria da. Euskarazko musika eta abestiak bultzatzen ditugu. Bakoitzak gure gustuak erakusten ditugu eta besteei helaraztean talde eta abesti berriak ezagutzeko aukera dugu.

**4** Musika zaletasuna duzu?

Musika entzutea asko gustatzen zait, baina nire lanagatik hainbeste ordu pasatzen ditudanez musika entzuten, etxera iristen naizenean isiltasuna gustatzen zait. Baina, bai, musika gustatzen zait. Dantzagatik egun osoa pasatzen dugu musikarekin, abesti berriak bilatzen ditugu...

**5** Zein estilo gustatzen zaizu gehien?

Egia esan, denetarik entzuten dut. Ez dut estilo jakin bat eta bakarra entzuten.

**6** Lanerako eta pertsonalak desberdintzen dituzu?

Klaseetarako musika mota bat erabiltzen dut eta gero etxean beste musika estilo bat entzuten

dut. Baina denetarik entzuten dut ere.

**7** Nolako da prestatu duzun zerrenda?

Zerrendan dantza eskolan entzuten diren abestiak daude, talde guztietan erabiltzen ditugunak; Igonek, Leirek, nik eta irakasle guztiek erabiltzen ditugun kantak. Beraz, abesti aniztasun handia dago. *Go!a-zen*-etik haur txikienei izugarri gustatzen zaiena, Bulego taldea, gazteen gustukoagoa dena. Denetarik. Batzuk dantzagarrigoak dira eta dantzatzeke erabiltzen ditugu, eta beste batzuk lasaigoak dira eta luzatzeko erabiltzen ditugu, klasearen hasieran eta amaieran. Esaterako, Rozalenen *Xalbadorren heriotzean* abestiaren bertsioa helduen klasean askotan jartzen dut, eta disfrutatzen dute.

**8** Zerrenda osatzea kostatu zaizu?

Ez. Eskolan euskarazko musika erabiltzen saiatzen gara, bai klaseetan bai emanaldietan. Aukeratutako abestiak momentu honetan ezagunenak edo gehien entzuten ari direnak dira. Baina askoz gehiago ditugu ere.

**9** Nola ikusten duzu euskal musikaren mundua?

Askoz aukera gehiago daude. Abanikoa izugarri zabaldu da. Duela zenbait urte euskarazko abestiren bat erabiltzen saiatzen ginenean ez genuen hainbeste aukerarik. Gaur egun, abesti asko erabil dezakegu gure dantza motarekin koreografiatu daitezkeenak.

**10** Dantza alde batera utzita, Irantzu Gonzalezi zerrendatik zein da gehien gustatzen zaizun abestia?

Rozalenen *Xalbadorren heriotzean* abestiarekin geldituko naiz. Abestia pertsonalki asko gustatzen zait, oso polita da, eta Rozalenen bertsioa... Horrekin geldituko nintzateke, baino gehiago daude.

**11** Zein, adibidez?

Aukeratzea zaila da, baina beste bat esateagatik, Izaroren *Paris* abestia. Izaro ezagutzeko zortea izan nuen eta abesti horri kariño handia diot.